

Herririk Herri |3|
Basobisitan irtengo dute domekan
Otxandioko limitaduan**Amalurra** |10|
Mugikortasun Iraunkorraren Astea
ekitaldiz beteta dator Durangon**Berbaz** |9|
J.M. Kortazar: "Azken urteotan Garai
eta Andra Maria izan dira nire etxea"

Kaleratzen aurkako mobilizazioak Permar enpresan

Iurreta• Permar enpresan langile bat kaleratu dutela asteon jakitera eman du ELAk. Enpresaren delegazioetan beste hiru langile kaleratu dituztela jakinarazi du sindikatuak. Kontzentrazioa egingo dute martitzenean.

4

Rokodromoa inauguratuko du udalak zapatuan

Elorrio• Maisuen etxea izandako eraikinean atondutako boulderra inauguratuko dute bihar, 12:00etan. Udal ordezkariak eta Erdella mendizale taldeko kideak elkartuko dira herriko kirol instalazio berrian.

2

Urte eta erdiko lanaren emaitza erakusketan

KULTURA • Aldundiak antolatzen duen Ertibil lehiaketara aurkeztutako lanetatik epaimahaiak hautatu dituenen artean, Elorrioko Iturrin dago Damaris Pan mallabitarraren koadroa, irailaren 19ra arte ikusgai.

11

Sasikoa, bigarren taldeko jokalariekin, fitxaketak osatuta

KIROLA • Areto futboleko A mailan hamaseitiko zortzi talde jaitziko dira. Sasikoakoez, zazpi jokalarik gutxiago zeuzkatez, bigarren taldeko jokalariek igo dituzte. Sasiko lehen partidua Castron jokatu dute.

16

Iurreta
Tradiziozko ekitaldiak eta nobedadeak Sanmigeletan

6

Durango
Jon Sarobe dantzariak jaurtiko du txupinazoa Sanfaustoetan

4

Mallabia
Kalbario kalea urbanizatzen hasi da Mallabiko Udala

4

Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketa domekan, Atxondon

> Axpeko Elizaburu landan hamaika txakur eta artzain lehiatuko dira

> Gerediaga elkarteak 44. biderrez antolatu du txapelketa eskualdean

3



Juan Lazkano

Baqué Txapelketa, hogeita bost urtean pilota bultzatzen

Durangaldea• Gazteen artean pilota bultzatzea helburu duen Cafés Baqué Txapelketak mende laurdena egin du. Aurten kadete eta gazte mailan 24 pilotarik parte hartuko dute. Txapelketa jokatu

izan duten pilotari ezagunak eta partiduak hartuko dituzten Durangaldeko herrietako alkateak elkartu ziren, besteak beste, astelehenean Errota kultur etxean egindako aurkezpenean.

15

IURRETA
INSTITUTUA
Goi-mailako Lanbide-Heziketako Berriazko Institutua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

SARBIDE PROBEN PRESTAKETA

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETARAKO

BALDINTZAK: ERDI MAILArako: 17 urte izatea
GOI MAILArako: 19 urte izatea edo 18 urte eta teknikari titulua

Matrikula epea: Irailaren 24a arte • Apuntatzeko deitu: 94 466 88 00
Hasiera data: Urriak 4

HERRIRIK HERRI >

ELORRIO

Rokodromoa inauguratuko dute bihar eguerdian

Maisuen etxea izandako eraikinean atondutako boulderra ikusi ahalko dute herritarrek

Bihar, 12:00etan, Musika Eskolaren ondoko eraikinean egin duten rokodromoa inauguratuko dute. Horrela, herritarrek boulder berria bertatik bertara ezagutu ahalko dute. Udal ordezkariak eta rokodromoa kudeatuko duten Erdella mendizale taldeko eskalada arloko kideak ere bertan izango dira.


Erdella mendizale taldeko eskalada arloak kudeatuko du rokodromo berria

Erdellako eskalada alorreko taldea astelehenetik aurrera zabal-kunde kanpaina egiten hasiko da; hau da, herritarrei rokodromoa erabiltzeko baldintzen berri ematen. Eric de la Cruz Erdellako kidearen arabera boulderrean ibiltzeko baldintza bakarra "mendizale taldeko bazkide izatea da". Horko urteroko kuota ordainduta boulderra erabili ahalko du interesadokanek. 16 urtetik beherakoek nagusi batez lagunduta joan beharko dute rokodromora. Oraindik ez dute ordutegirik zehaztu.

Gaztetxoei begira

Herrian eskalada sustatzeko asmoz gaztetxoekin hainbat ekimen egitea ere badute helburu. Herriko hainbat kirol ezagutzera emateko herri mailan dagoeneko martxan dagoen egitasmoaren barruan, sei-

Projektua Espainiako gobernuaren tokiko inbertsionarako diru-laguntzaren bitartez finantzatu dute 57.000 euroan. Erdellako kideek esan dutenez eskalada erakustaldiren bat ere egingo dute.



Niko Moreno Elorrioko alkatea kazetariei boulder berria erakusten.

Erabilgarri daude ikastetxeko eta Nizeto Urkizuko haurren parkeak

Haurrendako parke biak amaituta daude eta 200.000 euroko aurrekontuagaz egin dituzte

Opor aurrean hasi ziren Nizeto Urkizuko inguruan eta Elorrioko Herri Ikastetxean—haurreskola ere hantxe dago— haurrendako parke bana egiten. Lanak, dagoeneko, amaituta daude eta jolasleku biak erabilgarri.

Ikastetxeko parkea egiteko 80.000 euro erabili dituzte, eta Nizeto Urkizuko egiteko 120.000 euro. Parke bietako lurzorua kau-

txo bereziz estali dute, gaztetxoak eroriz gero ahalik eta minik gutxien hartu dezaten. Haren gainean mota guztietako txintxaunak ipini dituzte: "Herriaren hazkundera kontuan hartuta, herriko gune horietan jolasleku falta somatzen genuen, eta horregatik erabaki genuen haurrendako parkeak egitea", adierazi du Niko Moreno alkateak. ■ J.D.



Mota guztietako txintxaunak ipini dituzte haurrendako parkean.

Gaurkotutako izendegira egokituz, kaleen izenen plakak aldatuko dituzte

Udaleko zerbitzuen eta eraikin esanguratsuenen kokapena adierazteko seinaleak ipiniko dituzte

Orainsu, herriko kaleen izenen izendegi gaurkotua onartu zuten udalbatzarrean. Orain, datozen hile bietan, herriko kaleak izendatzen dituzten plakak aldatuko dituzte izendegi berrira egokituz. Kale guztietako plakak aldatzea da asmoa, izenean aldaketarik jasan

Kaleen izenen plakak hormari perpendikular ipiniko dituzte; horrela urrunagotik ikusiko dira

Besaidera igoera

Bestalde, domekan Besaide Eguna ospatuko dute. Erdella mendizale taldeak, 09:00etan ipini du ordua herriko plazatik Besaidera igotzeko. ■ J.D.

ez dutenena ere bai. Herriko plakarik gehienak orain aldatuko dituzte eta gutxi batzuk bigarren fase batean. Plaka horiek hormari lotuta ipini beharrean, hari perpendikular ipiniko dituzte, urrunagotik ikusi ahal izan daitezten.

Lan horiekin batera, herriko hainbat zerbitzu eta guneren kokapena jakinarazten duten norabide-seinaleak ere ipiniko dituzte; kanposantua, Iturri kultura etxea, Aldatzekua, Kirol Etxea eta Kiroldegia zer norabidetan dauden adieraziko dute. Amaitzeko, herrirako sarrera bitan gidariei Elorrioren sartzera doazela adieraziko dien ongiatorri seinaleak ere ipiniko dituzte udalaren logotipo barriagaz. ■ J.D.

MAÑARIA

Herri-bazkaria Andra Mari elkartearen urteurrenean

Bihar, irailaren 18an, egingo dute Andra Mari elkartearen 25. urteurreneko herri-bazkaria

Andra Mari Abesbatza eta Dantza Elkarteak sortu zuteneko mende laurdena ospatzeko urte honetan zehar antolatuko dituzten ekitaldiak borobilduko dituen herri-bazkaria dago antolatuta bihar eguerdirako, irailaren 18rako. Ekainean, Andra Mari elizan egin zuten Kiriño abesbatzaren eta Andra Mari

dantza taldearen mende laurdena ospatzeko antolatutako lehenengo ekitaldia: abesbatzaren emanaldi berezia egin zuten udaren hasiera hartan, organu eta txistu doinuek lagunduta eskaini zuten emanaldia. Urteotan abesbatzaren parte hartu duten abeslariak ere kantatu zuten.

Abuztuko herriko jaietan egin zuten taldetik igarotako hainbat dantzari elkartearen urteurrena ospatzeko antolatutako bigarren ekitaldia: dantzarien alardea.

Herri-bazkaria da urteurreneko hurrengo hitzordua. Orain 25 urte sortutako kultur talde biotan aritu izan direnak eta gaur egun dihardutenak batuko dira bihar-ko hitzorduan. ■ I.E.

Abesbatzak eta dantzariak emanaldiak eskaini dituzte urteurrena ospatzeko



ATXONDO

Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketa, domekan

Hamaika txakur eta artzain lehiatuko dira, iazko txapelduna eta lurralde bakoitzeko bi ordezkari

Euskal Herriko artzain-txakur abilena zein den domeka honetan erabakiko da Axpen, Eleizaburu landan. Gerediaga elkarreak berrogeita laugarren biderrez antolatu du txapelketa.

Urtero legez, lurraldekako txapelketak amaitu eta gero, lurralde bakoitzeko txapeldun zein txapeldunordeek eta iazko Euskal Herriko txapeldunak parte hartuko dute txapelketan. Goizeko 11:00etan hasiko da. 12:30ean saiheski dastaketa egongo da eta ardoa banatuko dute antolatzaileek.

Goizeko 11etan hasiko da eta 12:30ean saiheski dastaketa egongo da Eleizaburu ondoan

Iaz Aresoko Ttiki txakurrak eta Jose Antonio Alustiza artzainak irabazi zuten txapelketa. Nafarroako txapeldunak ere eurak dira, eta horregatik Nafarroako txapeldunordeaz gainera, hirugarren sailkatua ere izango da Axpeko lehiaketan.

Egin beharreko lana

Txakurrek artzainen aginduetara hiru behar egin beharko dituzte. Hasteko, banderekin markatutako bide batetik joan beharko dute txakurrek, ardiak dauden lekutik urruntzen. Gero landako hesietatik pasatu beharko dituzte ardiak, eta amaitzeko ardiak eskortan sartu beharko dituzte.

Lehiaketan egindako beharregatik emango diren sariesz gainera, euskal artzain-txakur arraza onenari ere emango diote saria domekako txapelketan. ■ A.U.



Iazko txapeldunak. Gerediaga elkarrea, Txelu Angoitia

GARAI

Despedida eta ongietorriak Santa Katalina ermitan

Santa Katalina ermitan jaiak pres-tatu dute biharko auzotarrek, usadioari eutsiz, eta eguerdi partean burutuko dira ekitaldi guztiak. Eguerdiko 12:00etako meza elizkizunagaz murgilduko dira jai egun honetan.

Meza elizkizuna eta dantza saioaren ondoren, luntxa emango dute antolatzaileek

Despedida eta ongietorrien meza izango da. Izan ere, Jose Mari Kortazar abadeak azken meza emango du, bere ordezkoe-gaz batera. Hain justu ere, duela zazpi urte ermita honetan eman zuten lehen bider Garain meza Kortazarrek.

Ondoren, dantza ekitaldi-ri lekua eginez, auzoko zein herriko dantzariak saioa eskainiko dute. Giroak geroago ere jarraituko du, izan ere, dantza saioaren ondoren luntxa ipiniko dute antolatzaileek. ■ M.O.

Anbulategiko lanpostua hartzeko eskea Osakidetzari

Hogei urtean udalak ordaindu duen lanpostua Osakidetzak bere gain hartzeko eskatu dute idatziz

Berbazko akordioak akordio, Atxondoko ambulategiko lanpostu bat udalak ordaintzen du, orain dela hogei urtetik. Hori dela-eta, udalak idatzi bat bidaliko dio Osakidetzari lanpostua bere gain hartu dezan eskatzeko.

Osakidetzak kudeatzen ditu langilearen egutegia, oporrak, bajak eta formazioa

David Cobos alkateak azaldu duenez, langilearen egutegia, oporrak, bajak eta formazioa Osakidetzak kudeatzen ditu. Nomina ordaintzearen kontua Osakide-

tzak "behin eta berriro" atzeratu duela adierazi du Cobosek, eta horregatik erabaki dutela eskaria idatziz egitea: "Gai honi buruz berba egiten hasteko idatzizko konpromisoa gura dugu".

Anbulategi probisional

Udaletxe alboko lorategian ipinita daude jadanik behin-behineko ambulategirako moduluak. Hilabete barru zabalduko dute ambulategi hori, eta berrirako lanekiraungo duten lau hiletan egongo da zabalik. 130 metro karratu ditu eta itxarongela, hiru kontsulta eta komuna izango ditu. Laster altzariak ipini eta argia eta ura sartzeko lanak egingo dituzte. ■ A.U.

IZURTZA

Bihar jokatu da Arraza Libreko Artzain-txakurren Bizkaiko VIII. Txapelketa

Border Collie arrazako lau txakurrek eta euren jabeek hartuko dute parte biharko txapelketan

Izurtzatik Mañarirako bideko gasolindegaren atzealdeko Santotomaseko landan jokatu dute, bihar 17:30ean, Bizkaiko arraza libreko artzain-txakurren txapelketaren VIII. edizioa.

Txapelketa jokatu duten orain arteko zazpi urteetan Galdakaon egin izan duten hitzordua Izurtzako landetan izango da aurtentzen, lehenengoz. Izurtzako Udalak eta herriko Argintxu elkarteak babestu dute, eta Artxate artzainen elkarteak antolatu du.

Jose Antonio Agirre abadiñarrak ere hartuko du biharko txapelketan parte

Udalak eta Argintxu elkarteak babestu dute Artxate elkarteak antolatutako lehia

Santotomaseko landan bihar beharrean jardungo dutenak Border Collie arraza eskoziarreko txakurrak izango dira guztiak. Lau artzain eta txakurrek hartuko dute txapelketan parte. Tartean, Bizkaiko txapelketa hirutan irabazi duen Jose Antonio Agirre "Kotzarri" artzain abadiñarra ari-tuko da, iaz txapelketa horretan bigarren egin zuen Blas bere txakurraren abildadeak erakusten.

Biharko txapelketan lehengo eta bigarren sailkatzen diren parte-hartzeileek, hil honen amaieran Elgoibarren jokatu-ko den Euskadiko arraza libreko artzain-txakurren lehiaketarako txartela lortuko dute.

Ardi lanetarako, euren txakurrekin egunero egiten duten lanaren erakusleho legez ulertzen dituzte biharko lako txapelketak Artxate elkarteak kideek: txakurrekin egiten duten lanagaz herri-tar guztiak gozatu dezaten. ■ I.E.

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

IURRETA

San Migel jaietako egitaraua martxan da gaurtik aurrera

Aurtengo jaietan Migeltxu Kajoi Eguna ospatuko dute lehenengoz, urriaren 1ean, dotore jantzita

Berez San Migelak irailaren 28tik urriaren 3ra badira ere, iurretarreijaiak "labur" egiten zaizkiela-eta, gaurtik hasita hainbat ekitaldi antolatu ditu San Migeletako jai batzordeak.

Pirritx eta Porrotxen emanaldiagaz hasiko da egitaraua, gaur bertan. Frontoian egongo dira pailazoak, 18:00etatik aurrera. Bihar herri-bazkaria edukiko dute, eta horren ondoren, 17:30ean, Aramaio eta Iurretaren arteko bertso desafioa hasiko da. Otxandioko jaietan egin zuten lehenengo saioa. Aramaio irabazi zuen orduan eta zapatukoa errebantxa izango da.

Berrikuntzen artean, urriaren 1erako Migeltxu Kajoi Eguna antolatu dute. Arrasateko Maritxu Kajoi irabazi zuen egina, dotore janz-

teko eguna izango da bariku horretakoa, eta prozesioa ere egingo dute iurretarek, tabernetan. Horrez gainera, irailaren 25ean Zaldai mendi taldeak irteera antolatuko du lehenengoz, eta egun berean Euskadiko laugarren One-Wall txapelketa jokatuko da.

Jai herrikoiak

Jai egitaraua herriko hainbat talderen artean antolatutakoa dela nabarmendu dute jai batzordeko kideek. Gazte, pilotari, txirrindulari, bertsolari, aisialdi taldeko, motorzale zein herri-kirol zaleek parte hartu dutela gogoratu du batzordeko kide Eneko Abasolok: "herriaren parte-hartze bako jairik ez dugu ulertzen, Iurretan behintzat". ■ I.E./A.U.



Donien atxa San Migel bezperan altxatuko dute, ohitura denez. I.G.

Langile bat kaleratu eta gero, protestak Permarren

ELAk jakinarazi duenez, Iurretako Permar enpresan langile bat kaleratu dute asteon, "ezelako arrazoi barik". Enpresaren delegazioetan Permarrek beste hiru langile ere kaleratu dituela jakinarazi du sindikatuak.

Kaleratzearen kontra protesta egiteko mobilizazioak egin

Atzo mobilizazioak egin zituzten enpresa aurrean eta martitzenean ere egingo dituzte, 13:00etik 13:30era

zituzten atzo, 13:00etatik 13:30era, eta datorren martitzenean ere kontzentrazioa egingo dutela azaldu dute. Kaleratzea "enpresak inprozedentzia onartzen duelako" izan dela dio ELAk: "enpresak ez du inongo diru arazorik". ■ A.U.



Iñaki Irazabal

Egun-pasa ederra egin dute Kofradia Egunean

Urteroko hitzorduari hutsik egin barik, domekan ehun pertsona baino gehiago batu zen Laixiarren, Kofradia Eguna ospatzeko. Eguraldia lagun, Iurretako sei kofradiek urteko kontuak argitu zituzten batzar orokorrean, eta gero iurretarek bazkarian, jokoetan eta erromerian jardun zuten iluntzera arte. Laixiarren zozketatu zuten produktuz betetako otzara Jose Antonio Artiñanok irabazi du, 8.073 zenbakiagaz.

ZALDIBAR

Datorren barikurako bertso afaria antolatu dute

Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariek jardungo dute kantuan zaldibartarren aurrean

Bertso afaria antolatu du Zaldibar-ko Udalak irailaren 24rako. Goierriko auzo etxean izango da ekitaldia, gaueko 21:00etan hasita. Bertan, Andoni Egaña eta Amets Arzallusek jardungo dute.

Auzo etxeko afariaren ondoren, Egaña eta Arzallusek buruz

buruko saioa egingo dute. Euskal Herriko txapeldun izandakoak esperientzia emango dio saioari; hendaia ere badu esperientzia, baina gaztetasunetik ere asko du.

Afarirako txartelak

Afarira joan ahal izateko txartelak daude salgai, hiru tabernatan: Paularen Zokoan, Karobin eta Kizkitzan. 20 euroan eskuratu daitezke; irailaren 21a da horretarako azkeneko eguna, antolatzaileek argitu dutenez. Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren babesa izan du udalak ekimen hau antolatzeko. ■ M.O.

Afarirako txartelak 20 euroan eskuratu daitezke; irailaren 21a da txartelak erosteko azkeneko eguna

Kataluniak Euskadi garaitu zuen rodeoan

Western protagonista izan zen joan zen asteburuan Zaldibarren. Zapatu eta domekan zehar, Euskadiko Txapelketan parte hartu zuten hainbat zaldunek, eta domekan Federazioen Arteko Kopa jokatu zuten Euskadik eta Kataluniak. Berez, puntu gehiago lortu zituen etxeko taldeak, baina aurreko jardunaldietatik abantaila zekartenez azkenean katalanek jantzi zuten txapela. Lehiaketaz gainera, afariak eta kontzertuak ere ospatu zituzten Olazar zelaian.



K. Aginako

MALLABIA

Kalbario kalea urbanizatzeko lanei ekin die Udalak

Kalean autoz sartzeko aukera izango duten bakarrak bertako bizilagunak izango dira



Kultur Etxearen ondoan dabilta makinak lanean.

Joan zen astean hasi ziren Kalbario kalea urbanizatzeko lanak. Zorua, hoditeria eta espaloia berri-berri gainera, argindarraren instalazioa lurperatuko dute, mobiliarioa aldatu eta irteerarik gabe-

Lanak Lasuen enpresak egingo ditu, 246.151 eurogatik adjudikatuta

ko kalea behin betiko izango da. Autoz kale honetan sartu ahal izango diren bakarrak bertako bizilagunak izango direla jakitera eman dute. Lanak Lasuen enpresak egingo ditu, eta 246.151 eurogatik adjudikatu ditu Mallabiko Udalak.

Aitor Loiola Mallabiko alkateak adierazi duenez, zain egon dira lan hauek egiteko Kalbario kalean bertan hainbat etxebizitza berri egitekoak zirelako, eta etxe berri hauek egin baino lehenago ez zuelako merezi urbanizatzen hastea. Gaineratu duenez, "gaur egun sufritzen ari garen egoera ekonomikoa, eraikuntza alorreko krisia eta etxe eskaria murriztu denez, atzeratzen dabil proiektu hori eta urbanizazio lan hauek hasi dira, ezin ziren-eta gehiago atzeratu". ■ J.G.

Aitor Loiola: "Zain egon gara lan hauek egiteko hainbat etxebizitza eraiki arte"

2010/2011 ikasturtea



Orain duzu **Aukera!**

4. mailako(4. HE) ikastaroak

Urritik ekainera, goizez edo arratsaldez > 465 €

Autoikaskuntza

Urritik ekainera > 450 €

Ikastaroak Barnetegian

IKASTAROAK	Barnetegian	Pentsio erdian
Urriaren 4tik azaroaren 12ra	702,54 €	634,50 €
Azaroaren 15etik abenduaren 21era	624,48 €	564,00 €
Urtarrilaren 10etik 28ra	390,30 €	352,50 €
Urtarrilaren 31tik otsailaren 25era	520,40 €	470,00 €
Otsailaren 28tik martxoaren 25era	520,40 €	470,00 €
Martxoaren 28tik apirilaren 20ra	468,36 €	423,00 €
Maiatzaren 2tik 31ra	572,44 €	517,00 €
Ekainaren 1etik 30era	572,44 €	517,00 €

Larrea auzoa, z/g ▪ 48340 Amorebieta ▪ Bizkaia

☎ 94 630 83 04 ▪ Faxe 94 630 89 09

barnetegi@aurtenbai.com ▪ www.aurtenbai.com



Zornotzako Barnetegia

DURANGO



Udalak ez eze, herriko hainbat talde eta elkartek parte hartzen dute jaiak osatu orduan.

Jon Sarobe dantzariak irakurriko du Sanfaustoei hasiera emango dien pregoia

Besteak beste, Violadores del Verso taldeak eskainiko du kontzertua

Aurrekontuak doitu behar izan dituzten arren, ekitaldiz betetako datoz urriaren 9an hasi eta 17an amaituko diren Sanfaustoak. Iaz 332.600 euroko aurrekontua izan zuten; aurten 308.200 eurokoa.

Aurten Jon Sarobe dantzariak irakurriko du jaiari hasiera emango dien pregoia. 17 urtegi hasi zen dantzan, eta Durangoko hainbat taldean ibili da, 30 urte baino gehiagoan.

Sanfaustoetan, ohiko ekitaldi jendetsuez gainera —artopila, esaterako—, nobedadeak ere badaude; ludoteka kalera aterako

dute eta hainbat tailer egingo dituzte; Andra Mariako elizpean, berriz, Durangoko taldeen kontzertuak egongo dira. Gazteei begira, Gazte Diskojaia antolatu dute 11-15 urtekoentzat. Gainera, ohitura bat berreskuratuko dute: suzko zezena egongo da hiru egunetan ezkurdin, 21:00etatik aurrera.

Kontzertuei dagokionez, Violadores del Verso taldea etorriko da (16 euro aurretik eta 20 bertan) urriaren 15ean. Urriaren 9an Surfin Kaos, Eraso eta Lor ariko dira, eta 16an Doctor Deseo. Abba taldean oinarritutako taldeak ere joko du 16an.

Indusketa lanak amaitu dituztenez, 'Zezenak dira' ekimena berriro Santa Anara bueltatuko da. Legea aldatu dutenez, 16 urtetik gorakoek bakarrik parte hartu dezakete sokamuturrean eta ez 14 urtetik gorakoek iaz arte legez. Amaitzeko, txosnak Pinondon egokituko dituzte aurten. (egitarau osoa www.anboto.org-n). ■ J.D.

Urriaren 15ean Violadores del Verso rap taldeak joko du Landako erakustazokan

Ardo dastaketa Plateruenean, irailaren 23an

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak euskal ardoak ezagutzera emateko kanpaina abiatu du Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat herritan. Datorren egunean, 20:00etatik aurrera, Plateruena kafe antzokian egingo dute ardo dastaketa Mikel Garaizabal enologo

elorrirak gidatuta. Izen-ematea doakoa da, baina plaza mugatuak ditu: gehienez 25 lagun. Apuntatzeko honako e-mailera idatzi behar da: kultura@plateruena.net.

Guztira, bost ardo dastatuko dituzte: hiru txakolin eta ardo bi. Txakolinak Bizkaiko, Getariko eta Arabako bana dira; Ardoak, berriz, Arabar Errioxakoak. "Euskal ardoen kultura ezagutzera eman gura dugu eta kalitateko ardoak ditugula erakutsi. Dastaketa didaktikoa izango da", dio Garaizabalek. ■ J.D.

Etorkinentzako euskara ikastaroa urrian hasita

Udaleko Euskara Sailaren ekimez eta Inmigratio Sailaren laguntzagaz, aurten seigarrenez antolatuko dute etorkinentzako euskara ikastaroa, AISA programaren barruan. Izena emateko epea irailaren 28ra artekoa da, eta udaleko Euskara Sailean egin behar da. Izen-ematea doakoa den arren, matrikula egiterakoan 10 euro ordaindu beharko dira, ikastaroa amaituta bueltatuko direnak.

Atzertirik etorritako edozeinek parte hartu dezake beti ere 16 urte edo gehiago baldin baditu. Ikastaroa urriaren 4an hasi eta abenduaren 22an amaituko da. Astelehen, martitzen eta eguaztetenan izango dira klaseak, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroak 60 orduko iraupena izango du eta klase bakoitzak ordu bikoia. ■ J.D.

Izen-ematea doakoa eta da irailaren 28ra arte apuntatu daiteke udaleko Euskara Sailean

BERRIZ

Euskara ikasleentzako udalaren diru-laguntzak

Euskara ikasleentzako diru-laguntzak emango ditu Berrizko Udalak. Hasiera, behe, erdi zein goi mailetako ikasleek izango dute aukera eskaera egiteko; etorkinen mailan ikasten dutenek ere diru-laguntzaren baitan sartu daitezke. Horretaz gainera, autoikaskuntzan dabiltzanek —HE1, HE2, HE3 eta EGA— ere laguntza jaso ahal izango dute.

Udalak informatu duenez, ordutegia zehaztu du tramite hauek egiteko: goizez 09:15etik 11:15era, eguerdiz 14:30etik 16:00era —tarte hau, batez ere, gurasoentzako— eta arratsalde 19:00etatik 21:00etara.

Bestalde, Berbalagun proiektuan parte hartzeko interesa dutenentzako, hilaren 16an, 20an eta 21ean ipini dute zita; ambulatorio zaharrea emango dute informazioa. ■ M.O.

DURANGALDEA

Hizkuntz eskubideen urraketak salatzen postontziak eskura

Atxondon eta Mallabian jarri dituzte postontziak udal idazkaritza eta liburutegietan

Egitasmoaren helburua Atxondon eta Mallabian hizkuntza eskubideen urraketak jaso eta konponbidea jartzeko mekanismo eraginkorra martxan jartzea da. UEMAk eta Behatokiak hitzarmena sinatu dute "hizkuntza eskubideen defentsa eraginkorra egiteko". Herritarrek postontzietan kexa eta proposamenak jartzea da asmoa. UEMAk espediente zabalduko dio kexari, eta

Behatokiari jakinaraziko dio. Gestioaren informazioa jaso eta kexa jarri duenari erantzuniko diote. Kexa guztiak udal idazkaritzan eta liburutegian jasoko dituzte.

Gaur egun, 50 buzoi inguru jarrita daude. UEMAk bideratutako kexak 2008an 52 izan ziren, 2009an 133 eta 2010ean 120 kexa. UEMArekin berbetan, herritarrek erakunde publikoek zein pribatuek ez dietela ahozko tratua edo idatziak euskaraz ematen eta enpresak euskaraz bazterten dutela azaldu dute. Udal langile eta hautesleek UEMAk udalei euskaraz lan egitea eragozten dietela ere badiote kexetan. ■ J.G.

Herritarrek buzoietan kexak jartzea eta proposamenak egitea da ekimenaren asmoa



Aitor Loiola Mallabiko alkatea eta David Cobos Atxondokoa.

Frankismoko dokumentuak, biktimen senideen esku

Frankismoaren biktimei gorazarre egiteko ekitaldia egin zuten, joan zen zapatuan, Berrizen. Eguerdian izan zen ekitaldi nagusia. Kultur Etxean, biktimen senideei Ferroleko artxibotik aterako dokumentuak eman zizkieten, une hunkigarriak biziz. Gainera, senide batek, berak gordetako dokumentuak Berrizko herriari eman zizkion dohaintzan. Lore eskaintza, bertsolariak eta Etxeren musika ere izan ziren ekitaldian.





Durangaldean labor

Garmendia eta Aierbe atxilotu zituzten martitzenean

Martitzen goizaldean Ekinen kontrako operazioan atxilotutako Egoitz Garmendia otxandiarra eta Urko Aierbe Durangon bizi den donostiarra Guardia Zibilaren eskuetan daude oraindik. Berri agentzien arabera, zapatuan pasatuko dira epailearen aurretik. Fernando Grande-Marlaska epaileak gidatutako operazioan Aierberen Durangoko etxea eta Garmendiaren gurasoen etxea mitau zituzten, besteak beste.

Kamioian 102 kilo speed zeramatzan gizon bat atxilotu dute Durangon

Burgosen helbideratua zegoen herbeherearra da atxilotua. Ustez, loreak ekartzen zituen Herbeheretatik Espaniara, eta Polizia Nazionala bere atzetik zebilen aspaldian. Irungo mugatik atzetik jarraitu zioten, eta Durangon geldiarazi zuten; loreen artean, lau poltsatan banatuta, 102 kilo speed zeramatzan. Kamioian beragaz zihon laguna ere atxilotu dute; ondoren, etxea miatutakoan, baita bere emaztea ere. 102 kilo horiekin 400.000 speed dosi egin zitezkeela kalkulatu du Barne Ministerioak.



Ahari lurreta martxa irailaren 26an

XXIII. Ahari lurreta zikloturista martxa irailaren 26an izango da. 09:00etan ipini dute hitzordua plazan. Izena martxaren egunean bertan eman behar da, goizeko 8:45 baino lehenago. Ziklistak Miota, Muniketa eta Trabakutik ibiliko dira (95 kilometro).

ABADIÑO

Traña-Matienako eskolako jolaslekuan aterpe berria egiten

Abuztuan hasi ziren eskolako jolaslekuan lanean eta datozen asteetan amaitzea itxaroten dute

Traña-Matienako eskoletako patioan estalkia ipintzeko 154.374 euroko aurrekontua daukaten lanak burutzen dihardu udalak. Eguraldiak laguntzen ez duenetan, eskolako umeek aterpean aisialdi-gunea izan dezaten egiten dabiltza lanak, gobernu taldeak jakitera eman duenez.

denerako orain arte ere eduki duten haizetarako gunea, eta euria egiten duen egunetan umeek jolasdiak igarotzeko aterpea izan dezaten burutu dituzte lanak.

Joan zen hilean, eskola hutsik zegoela, egin dute lanaren partetik handiena, eta, udalak adierazi duenez, denbora gutxi barru emango dituzte amaituztat.

Eskola hutsik zegoela ekin zieten lanei, abuztuan, eta, udalak jakitera eman duenez, laster dira amaitzekoak

Herri eskolako jolaslekuaren alboetako batean ipini dute estalki berria; aisialdirako, euririk ez

Abiadura murriztu guran Auzotik igarotzen diren autoen "abiadura murrizteko eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko" helburuagaz ipini dituzte, udal gobernuak ohar batean adierazi duenez, Zelaieta auzoko hainbat gunetan goruneak; Txanporta plazatik ger-



Eskolako patioan estalkia ipintzeko lanak laster amaitzea itxaroten du udal gobernuak.

tu ipini dituzte bi, eta Gaztanondi kalean eta udaletxearen alboan ere ipini dute bana.

Asteotan jardun dute goruneok atontzen, eta "kaleak hobetu eta oinezkoiei laguntzeko uda-

Zebra-bideetan goruneak ipini dituzte, "kaleak hobetzeko eta oinezkoiei laguntzeko"

lak daraman politikaren" barneko neurri legez auzotik ipini dute udal gobernuak lanok: Zelaietatik igarotzen diren autoen abiadura moteldu eta oinezkoiei lehentasuna emateko atondu dituzte. ■ I.E.

Aitte Kurutzekoak, domeka iluntzera arte

Astelehenean donien atxa jaso zutenetik nabaria da jai-giroa Zelaietan; domekara arte dira jaiak



Auzotar gazteak, astelehenean, donien atxa jasotzen.

Astelehenean, gaur, bihar eta etzi ere Aitte Kurutzeko jaiak ospatzeko Jai Batzordeak prestatu eta udalak eta herriko merkatariei zein tabernariet babestutako egitarau zabala dago Zelaietan antolatuta. Ohiturazko 'Pijama eta kamisoi eguna' da gaurkoa, eta iluntzean hasita gauerdia arte jairako adin eta gustu guztietakoentzako moduko proposamenak izango dira Zelaietan: Lotxo taldeak girotuko duen erromerian zein ostean ere dantzarako giroa izango da auzoan nagusi 20:00etako parrilladaren ostean, eta ohiturazko kantzontzilo eta kulero lasterke-ta egingo dute 04:00etan.

'Munduko kulturak' gaia hartuta, euren moztarok jantzita aterako dira jai-giroagaz gozatzerako, bihar. Arratsalderako, umeentzako puzgarriak, bertso-afaria eta erromeria jasotzen ditu, besteak beste, egitarauak. Euririk egin ezan ferialekuan izango dira ekitaldiak, eta probalekura aldatuko dituzte bestela. ■ I.E.

OTXANDIO

Ohiturari eutsiz, Basobisitan irtengo dute domekan

Goizeko 08:00etan ipini dute hitzordua, herriko plazan, Otxandioko limitaduak bisitatzeko

Iraileko hirugarren domekan, ohi duten legez, Basobisitan irtengo dute goizeko 08:00etan plazan batzen diren herritar eta udalagintariet. Herriko mugariak bisitatu dituzte.

Plazatik abiatu eta Gomilazera helden direnean, talde bitan banatuko dira ekimenean parte hartzen dutenak. Talde bat Aramaiogaz muga egiten duen eremura joango da. Han dagoen lur zati baten eskunduntzak ezbaiak eragin ditu herri bien artean. Otxandiarrek eta aramaiorrek, biek euna dela diote. Lur zati

horrek Oletagaz muga egiten du, eta Amaio termineraino helden da. Ohi duten legez, aizkoragaz zonalde horretako zuhaitzak markatuko dituzte; modu horretara, lur zati hori Otxandiokoa dela adierazi gura dute.

Hamaiketako egin ondoren, Anteparaluzetik herrigunera bueltatuko dira, Basobisitari amaiera emanaz. ■ J.D.

Aramaiogaz muga egiten duen lur zati bateko zuhaitzak markatuko dituzte

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan saltsan.com

URTXIINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Arrike
Liburudenda
Kalebarria, 2/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

BERBAZ >

“Fedeak ingurukoez arduratzen eta zoriontsu izaten lagundu behar digu”

Garai eta Andra Mariko parroketan izan duen elkarlanagaz pozik dago Jose Mari Kortazar. Arratiara doa

**Jose Mari Kortazar •**

- Mundakarra
- Azken 7 urtetan Andra Mariko parroketan eta Garain egon da abade

Durangon eta Garain familia eduki du Jose Mari Kortazar abadeak azken zazpi urteotan. Domekan Arratiara doa, Abadiñoko abade Esteban Orbegaz, bertako parroketan behar egitera. Ekuadorren misiolari ibilitakoa ere bada Kortazar. Durangaldean egingo duen azken astean elkartu gara beragaz.

Gustura egon zara zazpi urteotan Durangoko Andra Marin eta Garain?

Nik aurreko domekan ere esan nien mezan; eskerrak eman gura dizkiet denei, oso harrera ona egin zidatelako. Mundakarra izanda, esaten diet, denok joan gara traineru berean, norabide berean.

Zer aholku emango zenioke zure ordeztarrei?

Nik berari baino gehiago eliztarrei emango nieke aholkua: harrera ona egiteko, onartzeko eta euren gaitasunak erabiltzeko. Abadeok leku berrira moldatzeko denboratxo behar izaten dugu. Bat-

batean ezin da izan, herri bakoitzak bere ohiturak dituelako, eta hori ezagutu eta errespetatu egin behar da. Nik ere hori egin beharko dut Arratian.

“Oso harro nago euskaraz sortu dugun materialagaz”

Gaurenguegoera ikusita, abadeek laikoan gero eta laguntza handiago beharko duzue.

Lehen egunean Garaiko eliztar batek esaten zidan: “Guk lagundu behar dugu ze eliza gurea da”. Eliztar askok hori sentitzen du, eta normal laguntzen dute. Eurek eta abadeek egiten dute lan, ze parrokiak ez da abadearena. Hori sentitzen duen laikoak berez dago prest, eta egia da gaur egun gehiago parte hartzen dutela. Teologian jantziago daude, gainera; formazioa jaso dute. Eliza norberetzat edukitzea eta for-

matuta egotea, horrek baldintza biak ematen badira, oso ondo!

Euskaltzalea ere bazara.

Bai, abade izan aurretik euskara eskolak ematen ibili nintzen, eta Durangon egon naizen bitartean otoitz materialak eta katekesi materialak egin ditugu euskaraz. Lan batzuk euskaratu ditugu, beste batzuk sortu... Durangon sortutako liburuxkak dira, eta Bizkaia osoan zabaldu ditugu. Horretaz harro eta pozik nago. Parrokia batek horrelako lan bat egitea gauza handia da. Tabira eskualdean hainbat ekimen egin ditugu, eta blog bat ere badaukagu.

Zazpi urte hauetako oroitzapenetatik zernabarmenduko zenuke?

Asko dauzkak onak. Bateo agiriaren 500 urteurrena bidez tokatu zait, eta aurrekoan, adibidez, kanpotar helduak bataiatu genituen, hogeitau urte baino gehiagoko jendea. Hori hunkigarria izan zen. Baina oroitzapen bat aukeratzekotan Caritasegaz geratzen naiz.

“Palenquegaz hartu-emanetan jarraitzen dut eta parroketatik bi proiektutan laguntzen dugu; ospitalea eta eskola”

Gandiagak esaten du fedeak ez gaituela arduragabetzen gizartearen arazoetatik. Batzuk uste dute fedearen arazoetatik libratzeko ihesbidea dela, eta, parrokitik, guk ikusten dugu fedeak lagundu egin behar digula ingurukoez arduratzen, ahulari laguntzen eta denok zoriontsu izaten; fedeak ez da ihesbidea.

Ekuadorren egon zinen misiolari. Hangoekin hartu-emanetan jarraitzen duzu?

Joan den udako oporretan ere han egon naiz, Palenquen. Proiektu bitan lagundu dugu Andra Maritik eta Garaiko parrokiatik; ospitale batean eta eskola batean. Ospitalea orain dela 15 urte dago martxan, eta eskolak 10 bat urte dauzka. Pozik gaude eta hartu-eman estua daukagu eurekin, eta hango

jendea ere etortzen da lantzean behin euren esperientzia kontatzera.

Domekan Andra Marin egon zizuten agurra. Zapatuan, Garain. Penatuta zoaz?

Pena itzelagaz. Azken finean, zazpi urtetan hau izan da nire familia; bai Garaikoa bai Andra Marikoa. Ez naiz urrun egongo, baina. Trenean hogeitau minutu egin eta Lemoan gaude! ■ A.Ugalde

“Azken zazpi urteotan Andra Maria eta Garai izan dira nire etxea”

IRITZIA >

Gutunak

Aupa Durangoko gazteok!

Durangoko kaleak astintzeko asmoz, hainbat gazteren artean batzen hasi eta geure aisialdirako alternatibak sortzeari ekin geniola hila-bete batzuk igaro dira jada.

Geure proiektu propioak aurrera eramateko ilusioz bilduginen hainbat gazte, amesteko eta ekiteko esparru bat sortzeko. Ikasteko eta irakasteko toki bat izango denaren bidean, kaleak astintzeko gogoz, Durangon gazteon aisialdian dauden gabezia guztiak betetzeko irrikaz. Ilusio horren emaitza izango da zapatuan aurkeztuko dugun gazte konpartsa; gazteok sortua eta gazteontzat.

Aurkezpen egunerako egitarau xume bat prestatu dugu eta Durangoko gazte guztiari dei egiten diegu zapatu honetan arratsaldeko 18:00retan Santa Anako plazara bertaratu daitezela. Bertan ikusiko gara.

Durangoko Gazte Konpartsa

Greba orokorrari buruz

Inor mintzeko asmorik gabe, irailaren 29ko grebari buruz eskutitz hau idaztera eta nire iritzia adieraztera behartuta ikusten dut nire burua. LABeko afiliatu bezalahaserre eta, aldi berean, harrituta nago. Egia esan, itxaropen txiki bat nuen, izan ere, euskal gehiengo sindikala espainiar estatuan deitutako greba orokorrera gehituko zelakoan bainengoan. LAB eta ELAK CCOO eta UGTko zuzendaritzari bidalitako eskutitzak irakurri ondoren, txundituta jarraitzen nuen. Kritiken alde nago, azken finean, sindikatu hauen zuzendaritzak patronalaren eta gobernuaren txotxongilo erosiak baitira.

Baina euskal gehiengo sindikaleko zuzendariak ez dituzte kontuan hartzen CCOO eta UGTko base guztiak, eta langile arruntak orokorrean. LAB eta ELAK batasun sindikalari buruz hitz egiten dute, eta garbi ez dutela jokatzeko esaten diete, guztiz ados. Azken finean, euskal sindikatuak gainontzekoei leporatzen diete erreformarekin bukatzeko asmorik ez dutela edo kalte minimoekin konformatzen direla. Oso ondo, orduan estatuan grebara deitu duen sindikatu oro erreformista al da? CNT, CGT, kataluniar independentistak eta bestelako sindikatu edo organizazio iraultzailak ere?

Sindikatu eta zuzendarien batasunari buruz ez dugu hitz egin behar, langile guztien gehiengoari buruz baizik; sindikatu gabe ko langileak eta beste gutxiengo sindikatuak kontuan harturik. Edozein nazionalitateko langileen interesari buruz hitz egin behar dugu, sindikatuen edozein hitzarmen-esparrutik kanpo.

Susmoa dut, azken batean, goi mailakoen artean eztabaidatzen ari direla benetako langileriaren batasuna ahaztuz. Erreforma euskaldunei kalte egin digu, baina espainolei, kataluniarrei, galiziarrei eta abar ere bai, azken batean, gustuko izan ala ez, estatu zapaltzaile berean bizi gara. Kontzientzia eta elkartasun eza iruditzen zait grebara ez gehitzea; aldi berean, ekainean deitutako grebara gehitu ez zirenak eskirolak izan baitziren, nire ustez.

Independentista, abertzale eta komunista bezala ikusten dut nire burua, eta espainiar edo edozein herrialdeko langile bat anaia-arreba bezala ikusten dut, klase berekoak garelako, klase esplotatua. Argalak esaten zuen moduan, desberdintzen gaituena nazionalitatea soilik baita. Badirudi sentimendu nazional burges txiki merkea gure herriko esparru gehiegitan hedatzen ari dela, borroka soziala eta langile borroka alde batera utziz. Sindikatuen interes partidistek langileria kaltetzen eta zatitzen dute. Akaso izan al du bestelako eraginik erreformak Euskal Herrian? Espainiar, kataluniar eta beste langileak ez al daude euskaldunak bezala espai-

niar estatu faxistak esplotatuak? Ez litzateke izango gure aldetik internazionalismo eta elkartasun proletarioaren adibiderik garbiena haien/gure grebara gehitzea?

Gauza bat argi daukat: Euskal Herria independentea bada eta Euskal Errepublikak Sozialista bat ezartzen ez bada, nazio askapenerako borroka guztia alferrik izango da. Modu horretan ere burgesiaren menpe egongo gara. Aldaketa bakarra: euskal burgesia izango dela zanpatuko gaituena, eta aldi berean, hauek ez dute inongo arazorik izango euren anai-arrebekin (espainiar burgesiak) negoziak egiteko gu esplotatuta mantentzeko. Benetan uste al duzue aldaketarik izango dela?

Nolabaiteko kontraesan bat dago polo soberanista bultzatzen duten ezkertiarrengan alderdi erreazionarioekin elkartzerakoan (hori bai, euskaldunak), beste nazioetako langileriarekin batasuna ukatzen duten bitartean; edo nazio berekoekin esatera hausnartzen naiz: adibidez, Euskal Herriko CNTarekin. Pena bat da sentimendu nazionalak eta estrategia partidistak langileriaren batasunean eragina izatea.

“Agu” bat goikoentzako, pozik egongo baitira langile klasea zatitzen den bitartean.

Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitetzete!

Iker Oñate Barrainkua - Durango

Urko, txapo!

Inoiz entzun nahi ez duzun albiste batekin esnatu ginen asteartean; atxilotuak daude Euskal Herrian, Urko ere atxilotu egin dute. Zer? Urko atxilotu dutela? Gehienok ez duzue jakingo nor den Urko Aierbe, donostiarra berez, erdi gasteiztarra izatez eta orain urtebete Durangon aterrizatu zuen mutil alai eta gertukoa. Urte bete besterik ez darama Durangon bizitzen, eta segituan bilatu ditu lagunak, egin du koadrila, eta asko gara bere atxilotetaren notiziarekin lur jota gelditu garenak.

Denbora luzea zeraman poliziaren jomugan, eta berak bazekien bizi zuen arriskua zein zen. “Jarraitu egiten naute”, edo “gaur ere bertan daude” esaldiak entzuten genituen sarritan. Eta nik galdera bat egin nahi dizuet guztioi: polizia atzetik bazuen, lehenago edo beranduago atxilotuko zuten aukerak handiak zirela jakinda eta egun hauetan telebistan dioten bezain gaiztoa, terrorista, txarra bada, zergatik ez zuen alde egin? Zergatik ez zen “sasira” edota atzerrira joan? Nire iritzia argia da: ez delako esandako ezer ere.

Muntaia polizial berri baten aurrean gaude, Euskal Herriak hartu duen norabidearen aurrean, herritarrok hartutako erabakien aurrean, estatu espainiarrak bere indarra eta harropuzkeria erakutsi behar zituen. Urko eta gainerako 8 atxilotuak estatuak behar zituen txotxongiloak besterik ez dira izan.

Niri Urko, zure indarrarekin, zure konpromisoarekin, zure duintasunarekin... lekzio handia eman didazu. Azken momentura arte burua zutik egon zara, ez zara kikildu. Eta orain zulo zikin horretan... nahiago dut zer egiten ari zaizkizun pentsatu ere ez egitea. Ostiralean edo larunbatean epailearen aurretik pasako zarete, zuen deklarazioak, seguru asko, ez du ezertarako ere balioko. Jada zuen kondena idatzita baitago, eta kalera edo espetxera joango zareten badaki Marlaskak.

Nik lanerako eta borrokarako konpromisoari eutsiko diot, harro, zuk erakutsitako moduan. Eta larunbatean Durangon edo bi hila-bete barru Soton, Alcalan, Navalcarmon... edo Espainiako edozein kartzelatan ikusiko garela agintzen dizut.

Animo eta eutsi gogor, maite zaituztegu-eta!

Eulale Zilonizaurrekoetxea Uribarren - Urko Aierberen laguna

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Dotorezia politikan

Aste honetan udako etenaz, eskolarako itzulera eta urte-saso honetan landu ohi diren antzeko kontuei buruz jarduteko asmoa nuen. Baina duela ordu pare bateko gertakariak orain arte idatzita neukan apurra desegin eta dotoreziak politikan duen tokiaz hausnartzerantz bultzatu nau.

Gainez egin duen ur-tanta Kurutze Santu ermitan ospaturiko Aita Kurutzearen festa ospakizuna izan da, aste honetan bertan. Zinegotzi batzuek komunikabideen bidez izan dugu ospakizunaren berri, eta beste batzuek eraikinaren aurretik kasualitatez pasatzerakoan jakin dute, Kurutziagako auzotarrekin batera Durangoko alkatea bertan ikustean EAJko beste zinegotzi batzuekin eta, adi!, Alderdi Popularreko zinegotziarekin batera.

Ohituta gaude gobernu taldeak ekitaldietan gu egotea ekidin eta informazioa ukatzera

Ohituta gaude Durangoko udal gobernu taldeak edozelako ekitaldietan gu egotea ekiditera eta informazioa ukatzera. Baina ez dugu onartuko “dotorezia eskas” hau izan dezan gobernuan eta oposizioan gaudenon arteko harremanak hobekatu edo txarragoak diren zertan jakin ez duten elkarte eta auzotarrekin, zeintzuek udalera gonbidapena bidaltzen dutenean alderdi politiko guztietako bozeramaileengana iritsiko den uste onean egiten duten.

Ahaztu balitzaio ere, EAJk Durangoko Udaleko 21 zinegotzietatik 7 baino ez ditu bereak. Alkate on baten adierazgarri bere jarrera demokratikoak behar lukeela uste dugu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko irailaren 17a - 9. urtea - 386 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK

HABEren mailak egiaztatzeko azterketak HE1/HE2/HE3

3.MAILA/EGA (aste barruan eta larunbata goizean)

EGA eta H2tik gorako ikastaroak

4.maila(4 H.E/P.L)

AUTOIKASKUNTZA

Eskaintza bereziak

AISA, dendariak, guraso taldeak, mintzapraktika..

HABEk homologatua

Ikasleentzako udalaren dirulaguntza

Durangaldeko AEK 946817349

Euskara?



ikasi euskara
eman izena

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

aek-n

www.aek.org · 902 36 22 94

Durangoko Abarrak
AEK euskaltegia
946817349 abarrak@aek.org

Zornotzako AEK
946 73 43 70 zornotza@aek.org

Elorriko Abizari
AEK euskaltegia
946582111 abizari@aek.org
Berriz, Abadiño, Zaldibar, Atxondo...

KULTURA[>]

PINTURA > ERAKUSKETA

Zergatik aukeratu zenuen koadro hau Ertibilera aurkezteko?

Ertibilera aproposa ikusi nuen koadroa, batetik, orain arte egin dudana esperimendazio-lan handiena koadro horretan egin dudalako; urte eta erdian jardun nuen beharrean, eta oso lan garrantzitsua izan da niretzat. Bestalde, askotan ikusgarriagoa izaten da horrelako lan handi bat lehiaketa batera begira. Maila horretako beste lanik ere ez neukan, eta bera bakarrik aurkeztea erabaki nuen.

Zelakoa izan zen koadro horren sorrera prozesua?

Marokora egindako bidaiaren egindako argazki batetik abiatuta hasi nintzen koadro horretarako lehenengo konposizioak egiten: Mediterraneo argiagaz, beste paisaia batzuetako elementuekin, hemengo gauzak eta abstrakzioa zein figurazioa nahastuz egin nuen lan. Urte eta erdi horretan aparteko bozetoetan landutako gauzak ere joan nintzen jasotzen.

Sarritan hartzen dituzu argazkiak abiapuntu?

Bai. Askotan lana egituratzen has-teko erabiltzen ditut, bitarteko legez. Koadroetarako erabiliko ditudala pentsatuz egiten ditut askotan argazkiak. Eta hortik aurrera modu intuitiboago batean jarraitzen dut lanean, beste artista batzuek erabilitako estrategiei begira batzuetan, eta beste hainbat prozeduratan.

Argazkia eta koadroa, biak jendearen bistara, erakusketan ipintzea ez dozu pentsatu?

Ez. Nik uste dut horrek sorkuntza prozesuagaz lotutako esangura izan dezakeela, baina ez dut uste ikusleari erakusteak zentzurik izango lukeenik: nire pintzelak erakusketan ipintzea legez litzateke!...

Zergatik izan du koadro horrek halako prozesu luzea?

Berez denbora askotxo ematen dut koadro bakoitzagaz: ekin eta ekin egiten dut. Sei hilabete-edo igaro arte ez dut ikusten koadroa amaituta dagoela. Beste kasu batzuetan, urtebete ematen dut lanean: izan liteke kolore bat topatu dudala eta hortik abiatuta hainbat proba egitea, edo gaiari dagokionean dihardudala buru-belarri lanean...

Zer diotsu zure koadroa erakusketan ikusteak?

Nire lanak lehiaketa edo erakusketa batera aurkeztu aurretik buelta asko ematen dizkiot: koadroak merezi duela oso konbentziturata egon behar dut; bestela, gurago dut ez erakutsi... Koadroagaz gustura bazaude oso sentsazio ona da erakusketan ipintzea. Ikasteko beste bide bat dira erakusketak; jasotzen dituzun kritikengatik, batetik, eta

Esperimentazio lan sakon baten emaitza margozten

Epaimahai batek aukeratutako bizkaitar gazteen artelanak daude irailaren 19ra arte, Ertibil erakusketaren barruan, Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai. Tartean, 27 urteko **Damaris Pan Vega** margolari mallabitarraren metro bi luze eta metro bi zabal den koadroa dago bertan. Marokoko paisaia bat agertzen duen argazki bat izan zuen koadroak abiapuntu, eta urte eta erdiko sorkuntza prozesua. Arte Ederretako beste lau lagunekin konpartitzen du Damarisek tailerra Bilbon orain. Ikasten eta arte galeria batean lanean egona da Berlinen.



lana beste espazio batean kokatuta, lana desberdin ikusteko aukera delako, bestetik.

Berlinen eta Euskal Herrian, zer alde dago artista batentzat?

Berlinera gazte europar asko joaten da zerbait topatzera, eta han ere ez da erraza lekua egitea. Galeria asko daude, baina hemen legez, ez dela saltzen esaten da... Esperientzia oso ona izan zen Alemaniako; unibertsitatean zein kalean, gauza berri asko ikusten dituzu halako hiri batean. Tailerra ere alokatu nuen han, eta kaleko interbentzioei arreta handiagoa hasi nintzen jartzen; mural asko ikusi nituen fatxadetan, kaleko arte asko, eta hori beste eskola bat izan zen... Oraingo nire lanean ere bide horretatik esperimendatzen dihardut beste lagun batzuekin batera.

Beste disziplina batzuetan ere badiharduzu, beraz.

Koldo Tellaetxe eta Jon Elortza lagunekin, Perderika Kolektiboa taldea

sortu dugu hemen ere kaleko interbentzioak egiteko. Hirietako estetika gris-lauki inposatuari buelta batzuk emateko, fatxaden forma aldarazteko interbentzioak egitea da ideia: Bilboko Zazpi Katu gazteko fatxadetan egin dugu lan aurrean; irailan amaitu eta inaugurazioa egiteko asmoa daukagu, etorri gura baduzue!

Irakasle lana egin izan duzu...

Ikasten nenbilen bitartean, sei urtez egon nintzen lau eta hamabi urte bitarteko Mallabiako umeei eskolaz kanpoko pintura klaseak ematen. Faltan botatzen dut, oso gustura jardun nuelako, baina ez daukat denerako denborarik. Nik Arte Ederretan ikasten nuena eurei transmititzen saiatzen nintzen: aurreiritzi barik lan egitea zen bilatzen nuena, esperimentatu zezatela. Joan zen urtean ordezkapen bat egin nuen unibertsitatean, eta han ere oso gustura egin nuen behar, baina oso desberdina da; umeekin oso ondo pasatzen nuen.

Orain doktorego tesia prestatzen diharduzu buru-belarri. Zeren inguruan diharduzu lanean?

'Akatsaren mekanismoak arte sorkuntzan' da gaia: ona eta txarra zehazten duten balioak artean aplikatu ote daitezkeen zalantza jartzen saiatzen naiz, eta horrek zelan baldintzatu dezakeen bakoitzaren sormen prozesua; horixe da tesia-aren hari nagusia. Estandarrak "akatsaren" bitartez zelan apurtu daitezkeen eta bide berriak zelan zabaldu ere aztertzen dihardut.

Zerk bultzatu zaitu tesirako aztergai hori aukeratzera?

Beti jardun dut arau, lege eta aurreiritzien inguruan hausnartzen... Hori dena artearen eremura eroatea da gura izan dudana. Urte bi daramatza gaian sakontzen. Oso aberasgarria ari da izaten, eta nire lan egiteko moduan ere eragina izan du: gogoeta luzeagoa egiten dut margotzen hasi aurretik orain, gehiago jartzen dut koadroan egongo dudana guztia zalantzan. ■ I.E.

“Gazte asko joaten da aukera berri bila Berlinera, eta ez da erraza lekua egitea”

ANTZERKIA > EMANALDIA

Glu Gluren lan bategaz ekingo diote Errotan ikasturte berriari

'Marika de playa' antzezlanaren bihar, 20:00etan hasita, Abadiñoko Errota kultur etxean



Irailaren 18an Glu Glu Producciones taldearen emanaldiaz hasita, hilero dantza edo antzerki emanaldi batek beteko du datozen asteetan Traña-Matienako Errota kultur etxea. Orain arteko eskaintza zabaltzeko helburuagaz abiatu dute ikasturtea, eta horrela azaldu du Marisa Vázquez kultura zinegotziak: "Durangaldeko biztanleak Abadiñoko antzokira erakartzeko" asmoagaz aukeratu ei dute "konpainia sendo baten obra umoretsua".

Abadiñarrak ez eze, "herritik kanpoko lagunak ere emanaldietara erakarriko" dituen programazioa ekartzea dutela ikasturte honetan helburu eman dute udaleko ordezkariak jakitera. Aurre-

Herritik kanpoko ikusleak ere erakarri gura dituzte Errotara

Antzezlanaren gaur eta poesia errezitaldia bihar kultur etxean

tik euskal antzokietan ikusle asko hartu zituen *Cocidito madrileño* antzezlanaren sortzaileen lana da, bihar 20:00etan, eta 8 euroko sarre- ragaz, Errotan ikusgai izango dena.

Errezitaldia etzi

Irailaren 19an, bestalde, Antonio Molina Medina eta Daniela Bartolomé Mororen *Gobada* liburua- ren aurkezpena hartuko du kultur etxeak. Liburuaren egileek eta Vicente Moreno abadiñarrak errezitaldia eskainiko dute, domekan, 12:15etik aurrera, Errota kultur etxe-ko oholtzatik. Gitarra doinuak lagunduta eskainiko dituzte hautatutako olerkiak doako sarrera izango duen ikasturteko kultur etxe-ko bigarren hitzorduan. ■ I.E.

Iaz abiatutako bidetik jarraituta, umeentzako zinema barikuetan

Barikuro herriko txikitxoentzako apropos aukeratutako euskarazko film emanaldiak eskaintzea da iaz hasitako bidea. Ikasturte honetan ere, bariku iluntzetan, haurrentzako zinemagaz hitzordua izango da Abadiñoko umeentzat.

Ikusi makusi ekimena ipini dute berriro martxan. Txanpota kultur etxean egiten dabil- tzan lanen ondorioz, Zelaietan barik, Traña-Matienako Errota kultur etxean izango dira dato- zen hilabeteetan barikuetako zine emanaldiak.

Iaz, hainbat emanalditara- ko sarrera guztiak agortu zire- la eta ekimenak arrakasta han- dia izan zuela azpimarratu du udalak. Ume abadiñarrei eus-

karazko aisialdi aukera eskain- tzea da zikloaren helburu nagus- ia, udal arduradunek jakin era- gin dutenez: euskara zineagaz eta aisialdiagaz lotuta, hizkun- tza eta aisialdia, biak elkarre- gaz gozatu ditzaten.

Datozen barikuetan

Gaur 18:30ean da ikasturteko lehenengo emanaldia, eta *Des- perezados-en kondaira* pelikula da emango dutena.

Datozen bi emanaldietara- rako film izenak dituzte orain- goz zehaztuta; datorren bari- kuan, irailaren 24an, 18:30ean, Errota kultur etxean izango da hurrengoa; *Planet 51* filma eskainiko dute orduan, ikastur- teko bigarren emanaldian.

Umeek aisialdia eta euskara, biak batera, gozatu ditzaten

Gaurko eta irailaren 24ko film eskaintza daukate prest

GEURE DURANGALDEA



Jose Martin Urrutia, 'Txotxe' Irakaslea

Estansi eta Dora

Hemen nago berriro ere, merindadean eta mila eta bostehun hizkiko zutabetxo honetan. Ilargi beteak udaren luzapen eman diguna disfrutatzen eta epe batean utzitako zereginei aurre egiten.

Aurreko hilabeteetan hor ibili izan naiz bazterrak zehar- katzen, eta alforjak irudi, hitz zein sentsazioz betetzen. Sasoi aproposa, alajaina.

Aurten bidai lagun berriak izan ditut; Ralf, Mutrikun bizi den flandriarra eta bere astoak: Estansi eta Dora. Lehengo bide- zidorrak jarraituz iparraldetik hegoaldera mugitu gara, hegoak dituen altxor preziatuena bila; olio eta ardoa. Manto, presa barik, lepo gainak gurutzatuz eta kasuren batean tontorrek ere bai. Gure etsaiak baziren, bai, aldapak, baina etsairik han- dienak hesiak izan dira. Hesiak, bai: arantza betetik dauden burdinatxo luze horiek; nirea dena eta zurea ez dena gogora ekartzen digutenak. Eskerrak gure alforjetan aliketak sartzeaz ez ginela ahaztu.

Nahiz eta jakin irudi xelebrea sortzen genuela, harritu egin gaituzte herriak gurutzatzerakoan jaso izan ditugun ongietor- riek. Irribarre horien atzean zera soma zitekeen: "Niri ere horre- la gustatuko litzaidake Euskal Herria zeharkatzea". Akaso denon inkoszientean asto bat dugulako, alforjak gainean eta bidaiatzeko prest; agian inoiz ez diogulako nomada izate horri uko egin. Bat-batean marrazten ari naizen irudi polit hau ber- tan behera jausten zait, nire herritasuna aldatzen badut, eta euskalduna barik ijito bihurtzerakoan, eta Euskal Herrian egon barik Frantzia. Hotzikara sartzen zait gorputz guztian, eta nire burua Orlyko aireportuan ikusten dut, asto barik eta abioi batean ekialderantz kanporatuta.

Bidezidorrak txikitzen ditugun bezala, beste kultura batzuk baztertzeko ditugu, eta zoritxarrez modu bakar batean bizitze- ra bultzatzen gaituzte.

Lasai, Estansi eta Dora, beti izango dugu tokia eguzkia gor- detzen den etxean.

LITERATURA > TAILERRAK

Irakurleen txokoak eta 'Poesia ulertuz' tailerra Durangoko Liburutegian

Oraindik ere eman daiteke Durangoko Liburutegiko irakurle txokoetan zein poesiari buruzko tailerrean izena

Poesia irakurri eta aztertuz gene- roagaz gozatzea dute *Poesia ulertuz* tailerraren antolatzaileek jomuga nagusia. Azken urteetan egin duten legez, hamabostero batuko dira tailerraren parte- hartzaileak Durangoko Liburu- tegian. Juan Ramon Makuso idaz- leak dinamizatuko ditu hama- bostero poesiaren inguruko liburutegiko saioak.

Urriaren 4an, 19:00etan, hasiko dute 'Poesia ulertuz'

Urriaren bata baino lehe- nago, liburutegian eman ahalko da *Poesia ulertuz* tailerrera- ko izena, eta urriaren 4an 19:00etan izango da lehenengo saioa.

Irakurtzeko zaletasuna duten guztientzako pentsatuta antolatu dituzte irakurleen txo- koak ere Komentukaleko liburu- tegian. Urritik ekainera bitar- tean hilerokoa izango da irakur- le txokoen hitzordua. Aurrez aukeratu eta irakurritako liburua taldean komentatzea da txokoen dinamika eta jomuga. Urriaren 6an 18:00etan da lehenengo saioa: gaztelarazko taldean Azar Nafisiren *Las cosas que he calla- do* eta euskarazkoan Paolo Gior- dianoren *Zenbaki lehenen bakar- dadea* landuko dituzte. ■ I.E.

Urritik ekainera arte, hamabostero eta hilero dira hitzorduak

PROGRAMAZIOA > IURRETAN

Aramaioko eta herriko bertsolarien arteko desafioa bihar Iurretan

“Ofizialki” irailaren 28an abiatuko dituzten San Migel jaien egitarauan jasota dago biharko bertso-desafioa

San Migel jaien egitarauan jasota dago biharko, irailaren 18ko, bertso desafioa. Arabako Koadrila Arteko Bertsolari Txapelketako irabazle izan ziren aramaiarrei iurretarek jotako hordagoaren haritik dator biharko saioa. Uztai-lean, Otxandioko jaietan ere jardun zuten talde biek, bigarren jardungo dute beraz, bizkaitarrek eta arabarrek desafioan.

Launa bertsolarik kantatuko dute herri bakoitzeko taldeetan

Irailaren 18an, 17:30ean da bertso-desafioa

Bihar, herri-bazkariaren ondoren, 17:30ean da desafioa ikusi eta entzuteko hitzordua. Iñaki Viñaspre, Manex Agirre, Iker Agirre eta Xabi Igoak kantatuko dute aramaiarren taldean; eta Miren Amuriza, Gorka Lazkano, Eneko Abasolo “Abarkas” eta

Ander Salaberriak jardungo dute iurretarren taldean. Talde biei bertso-tarako gaiak ematen Maite Berriozabalek jardungo du.

Antzezlanaren hurrengo

Irailaren 24an da, bestalde, jaien egitarauaren barruan jasota datorren Iurretako Anderebide elkarteak antolatu duen antzerki emanaldia. Lehenengoz hartu du Anderebide emakume taldeak Iurretako San Migel jaiak antolatzeko batzordean parte, eta eurek proposatu dute aurretik Durangaldeko hainbat herritan ikusgai izan dugun *Ser o no ser visible* antzezlanaren. ■ I.E.

Jaien egitarauan jasota dago ‘Ser o no ser visible’ antzezlanaren ere

Anderebide emakume elkarteak proposatuta dator antzezlea



DANTZA > IKASTAROA

Dantza ikastaroak Durangon, Elorrion eta Berrizen aukeran

Urritik ekainera arteko ikastaroak, dantza tradizionalak AIKO taldekoekin ikasteko



Modu atsegin eta naturalean dantza egiteko elkargune izan zen joan zen ikasturtean Durangoko Plateruena; AIKO taldearen dantzaldi ibiltarien Durangaldeko lehenengo plaza izan da Plateruena. Ekimenak izan duen harrera beroa ikusita (80 lagun batu dira aste-oro), eskualdeko beste bi herritara zabalduko dute eskaintza.

Dantza tradizionalak ikaste-ko “beste era bat” da AIKO taldeak dakarrena: irakasleen berbetan, “dantza eskola edo akademieta-ko zorrotasunik barik, gozatuz ikastea eta ikasiz gozatzea” da saioak gidatzen dituen filosofia. Era natural, lasai eta dibertigarrian, balsa, pasodoblea, jota edo soka-dantza lakoak dantzatzen ikastea da proposamena.

Izena eman aurretik proba egin gura dutenentzako saioa izan zuten martitzenean Plateruenean, eta irail amaieran (27an eta 28an) egingo dituzte esperientzia lehe-

Era lasai, natural eta dibertigarrian dantza egiten ikasteko

nengoz hartuko duten Berriz eta Elorriko aurkezpenak.

Durangoko ikastaroaren datak badaude dagoeneko zehaztuta: urritik ekainera, eguaztentean batuko dira dantzazaleak Durangoko Plateruenean: ikastaroan lehenengoz parte hartzen dutenek 18:30etik 20:00etara izango dituzte hasiera ikastaroak, eta 20:00etatik 21:20ra iazko ikastaroan jardun zutenek. ■ I.E.

Aurten Elorrion eta Berrizen ere egingo dituzte saioak



AURKEZPEN SAIOAK

(Doan, konpromisorik barik eta izena eman barik proba egiteko egunak)

BERRIZEN

Irailaren 27an
19:00-21:00
Iremiñeren lokalean

ELORRION

Irailaren 28an
19:00-21:00
Arriola antzokian

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

IRAILAK 18 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
AIKO TALDEA
ERROMERIA. Sarrera doan.

IRAILAK 23 20:00etan
EUSKAL ARDOEN DASTAKETA
MIKEL GARAIZABAL
Gonbidapenarekin (irudia erantsita)

IRAILAK 24 22:00etan
EH SUKARRA
20 URTE BIRA
KONTZERTUA. Sarrera: 10euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

MONDO FLURSS
Kolare Bitxa Teatroa
2-5 urte bitarteko umetxoentzako
Irailak 19 • 2 pase 17:00 / 18:30

ROBOT MAITEA
Marie de Jongh
5 urtetik aurrera. Txikitxartelarekin doan
Irailak 26 • 2 pase 18:00

Guk ere iraila umeei eskaintzen diegu

San Agustin KULTUR GUNEAK
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11.94 601 07 76 Artekale, 14 Durango



Oso gutxi kostatzen da zure
Renault-aren segurtasuna mantentzea

95€ -tik **2 PNEUMATIKO MICHELIN**

NEURRIAK	PSP 2 PNEUMATIKOAK
77 11 269 096 175/65/14 82T	95€
77 11 269 112 195/65/15 91H	140€
77 11 378 571 205/55/16 91V	175€
77 11 269 127 205/60/16 92H	220€

MUNTAIA ETA OREKATZEA DOHAINIK



www.renaultservicios.es



**RENAULT
SERVICIOS**

ZURE RENAULT-AREN MAILAN
RENAULT BAKARRIK DAGO



2 Pneumatikoren bukaerako prezioa, muntaia, orekatzea, ekotasa eta BEZ-a barne

GAURSA ARRIANDI 12. IURRETA. TEL. 946 20 33 00 www.gaursaautoak.com

KIROLAK >

Baqué Txapelketa: 25 urtean pilotari gazteen erakusleiho

Aurten mende laurdena egingo du Cafés Baqué txapelketak; urtero legez Abadiño, Mañaria, lurreta eta Atxondon jokatuko dituzte partiduak buruz buruz, kadete eta gazte mailan



Iaz Joseba Ezkurdiak jantzi zuen txapela gazte mailan finalean Jauregi menderatu ondoren. Kepa Aginako

Bizkaian zein Euskal Herri mailan gazteei zuzendutako buruzburuz txapelketarik inportanteenetakoa – Elgetakoagaz batera – den Promesen Cafés Baqué Txapelketak 25. aldia du artengoa. Mende laurdena joan da Bazeta berriztarrak lehenengo txapela jantzi zuenetik. Harrezkero, txapela jantzi dutenak handik denbora batera profesionaletan ikustea ohiko bihurtu da. Aurten kadete eta gazte mailan parte hartuko duten 24 pilotariak ere urrats horixe emateko erakusleiho garrantzitsuenetakoa aprobetxatzea izango dute helburu.

Ohi dutenez, seinatutako lau multzo antolatuta dituzte mailako. Multzo bakoitza mailakatuta dago; horrela, eskualdeko hiru ordezkarietatik bik–hirurak kadete mailan–, Bereikua iurretarrak eta Martinez atxondarrak, behe-behetik ekingo diote bideari; Pradera mallabitarak, berriz, hirugarren jardunal-

dian jokatuko du estreinakoa.

Lehiak eguaztenetan 19:00etan jokatuko dituzte Abadiño, Atxondo, lurreta eta Mañariko pilotalekuetan txandaka. Finalerdiak urriaren 24an jokatuko dituzte lurretan, eta finalak urriaren 28an Atxondon.

Gazte mailan Arrieta markinarra, Tainta nafarra, Arratibel

Finalerdiak lurretan jokatuko dituzte; finalak, berriz, Atxondon urriaren 28an

gipuzkoarra –iaz txapeldun kadete mailan– eta Aretxabaleta markinarra dira multzoburuak. Kadeteetan, berriz, Elezkano (Zaratamo), Labaka (Gipuzkoa), Apeztegia (Nafarroa) eta Atutxa (Galdakao). ■ J.D.

> Bideoa ikusgai www.anboto.org-en

Txapelketan arituriko pilotariak ospakizunean



Astlehenean 25 urteak ospatzeko ekitaldia egin zuten Trañamatenako Errota kultur etxean. Besteak beste, aldi askotako irudiak jasotzen dituen bideoa erakutsi zuten.

Pilota partiduak hartuko dituzten lau herrietako alkateez gainera, parte hartu izan duen hainbat pilotarik ere euren babesa erakutsi gura izan zioten txapelketari. Ekitaldian izan ziren, esaterako, Asier Berasaluze, Eñaut Berasaluze, Rober Uriarte, Iñaki Iza, Alexis Apraiz, Ibai Zabala eta Oier Zearra.

Hasiera hartan, 1986an, txapelketa sortu zedin lan handia egin zuen Angel Garcia Añok ere orduko kontuak gogoratu zituen. ■ J.D.

Durangaldeko hiru pilotarik parte hartuko dute txapelketan

Emakumeek ere Baqué Torneoa irabazi gura dute asteburuan

Joan zen asteburuan Tabirako Baquéko gizonen talde nagusiak Baqué Torneoa irabazi zuen. Asteburu honetan emakumeen txanda izango da. Bihar, 19:00etan, Irlandesas taldearen kontra jokatuko dute finalerako txartela. Aurretik, 17:00etan, Loiola Indautxuk eta Getxok jokatuko dute. Hirugarren eta laugarren posturako lehia domekan 10:00etan jokatuko dute, eta finala 12:00etan hasiko da.

Bestalde, joan zen asteburuan Nagore Saratxaga Torneoa parte hartu zuen emakumeen taldeak, eta ezin izan zuten partidurik irabazi. ■ J.D.

Eskalatzailen kontzentrazioa bihar Atxarten

Zulu mendi taldeak 12 orduko eskalada rallya antolatu du, zaturako, Atxarten. Antolatzailerek eskalada zaleak batzeko ekitaldia dela diote, eta ez lehiaketa bat. Hala ere, txapelak eta garaikurrak banatuko dituzte eta eskaladarako materialen zozketa ere egingo dute parte-hartzaile guztien artean. Ekimena Olondon egingo duten afari batez amaituko dute.

izena emateko honako e-mail honetara idatzi daiteke: info@mendikoetxea.com. Telefono bidez ere egin daiteke: 94 416 82 53. Euskal Herrian eskalatzailen maila handia dagoelako antolatu dute eskalada rallya. ■ J.D.

Unda bosgarren izan da Munduko Txapelketan

Maider Undak bosgarren amaitu du Moskun jokatu den borroka libreko Munduko Txapelketa. Lehenengo kanporaketan Puerto Ricoko Dayanara Rivera kanporatzea lortu zuen. Ondoren, final zortzirenetan ezin izan zuen Ohenewa Akuffo –zilarrezko domina irabaziko zuen kanadiarra– gaingitu.

Bigarren aukeran, lehenengo bi kanporaketetan Azerbaijango Zumrud Gurbanhajiyeva eta Txinako Dan Li gaingitu zituen. Azkenik, brontzea irabazteko azkeneko koskan, Kyoko Hamaguchi japoniarra irabazi zion. ■ J.D.

Belaunaldi berria, erronka gaitzenari aurre egiteko

Aurten hamaseitzi zortzi talde jaitsiko dira ohorezko A mailatik; Sasikoak filialeko jokalarik gazteekin egingo dio aurre denboraldiari



Eguaztenean lagun arteko partidua jokatu zuen Sasikoak Soloarteren kontra. Kepa Aginako

Areto futboleant datorren denboraldirako egin gura duten berrantolaketak garestitu egin du mailari eustea. Sasikoak jokatzeko duen ohorezko A mailan, 16 taldetik erdiak jaitsiko dira. Iaz mailari eusteko gorriak ikusi bazituzten, aurten beltzei ere egin beharko diete aurre lehenengo zortziren artean geratzeko. Gainera, 'handicap' moduan taldeko zazpi jokalarik taldea utzi dute, eta horiek ordezkatzeko bigarren taldetik sei-zazpi jokalariri igotzute. Belaunaldi berriak erronka gaitzari egingo dio aurre bihar hasiko den denboraldian.

Fitxaketak egitea geroago eta gaitzagoa den sasoiaren bigarren taldean ipini dituen esperantzak Durangoko taldeak: "Elkar ondo ezagutzen dute, eta iaz lehenengo taldeagaz entrenatzen ibili ziren. Babesleak lortzea oso gaitza da, eta bigarren taldera jotzea izan da ia aukera bakarra", dio Aitor Olivaresek. Horren ondorioz, aurten lehenengo, gazte mailako taldea

sortu dute, bi-hiru urtean orain ere indako haziaren fruituak jasotzeko asmoz.

Hiru fitxaketa

Sasikoak hiru jokalarik fitxatu ditu denboraldiari aurre egiteko. Gernikatik David Vargas ekarri dute; hegalean jokatzeko du, gola emango dio taldeari eta lehen ere Sasikoan ibilitakoa da. Berrizko Pesion Break taldetik Imanol Acedo aurrelari gaztea fitxatu dute; buruz buruko jokaldietan abila da. Durangoko Mendibeltz taldeko Ibai Ortuoste atzelaria ere etorri da; Fisikoki indartsua eta segurua da.

Talde nagusia Aitor Olivares, Aitor Suarez, Xabi Goitia, Jose Basaldua, Iban Urnieta (B taldeko entrenatzailea izango da) eta Omar Ariasek utzi dute. Borja Crespok taldean darrai, baina belauneko lesio serio batetik errekerperatzen dabil.

Bihar Castro Urdialesen kontra jokatu dute denboraldiko lehen neurketa. ■ J.D.

A.Olivares: "Fitxaketak egitea gaitz dago, eta bigarren taldeari eman diegu aukera"

Bihar Castro Urdialesen kontra hasiko du aurtengo denboraldia Sasikoak

neurketa, San Pedro taldearen aurka. Urte bian beste hainbeste igoera lortu dituen Elorriok ere etxetik kanpora ekingo dio ligari; Sopelanan, hain zuzen ere. Iurretakok Berriatuko bisitatuko du, eta Zalduak Ibarsusi jasoko du etxean. Emakumeetan Elorriok Sopuertaren kontra jokatu du etxean.

Areto futboleant bigarren erregionaleko liga ere asteburu honetan hasiko dute Gu Lagunak eta Dantxari taldeek. Gu Lagunak Sestao B jasoko du bihar etxean, eta Dantxari Derioko Txorierreren kantxa bisitatuko du domekan. ■ J.D.

Bost futbol taldek liga hasiko dute asteburuan

Berrizek Sestaon jokatu du, eta Elorriok Sopelanan ekingo dio denboraldiari

Asteburu honetan futbol ligari ekingo diote, Berrizek ohorezko mailan, Elorriok goren mailan, Iurretako zein Zalduak lehenengo erregionalean eta Elorriok emakumeen bigarren erregional mailan.

Berrizek Sestaon jokatu du denboraldiko lehenengo

Gu Lagunak eta Dantxari ere liga hasiko dute areto futboleant

Iker Saenz de la Cuesta
•Areto futbol entrenatzailea



Nesken etorkizunari begira

Nesken areto futbola harro egoteko arrazoiak eman dizkio azken urteotan Durangaldeko jendea; bai Bete Arinek bai Kurutziaga Ikastolak, bai Durangoko Kulturalak. Hiru talde eta hiru modu desberdin areto futbola ikusteko eta ulertzeko, bakoitza bere izaera propioarekin, edo kluba lantzeko eta eramateko moduarekin.

Tituluak edo denboraldi politak bizi eta gero, Durangaldeko nesken areto futbola pertsonaia jaisteko arriskuan dago, eta Kurutziagatik deialdia egiten ari gara azken arnasa bota arte hori gerta ez dadin (www.kuru.es webgurearen bidez, Durangoko kaleetan kartelak jarri, ezagunei galdetu...). Eskertzekoa da Anbotok idatzitako albistea Kurutziagari laguntza emanez.

Ezin dut sinetsi Durangon ez dagoenik areto futboleant jokatzeko gogoia daukan neskarik, ezin dut sinetsi negarra edo barrea, ilusioa edo haserrea, eragin didan nesken areto futbola ez duela jarraituko aurtengo denboraldian, jokalarik batzuen aurpegietan oraindik gogoia ikusi dezakedalako.

Espero dut hurrengo kolaborazioan eta lerro hauetan kontatu ahal izatea orain arteko ahalegin honek guztiak fruitu polita eman duela, eta gure neskek, gorri jantzita, zelaian ikusten ari garela. Zuen zain gaude!

Adituarentxokoa

Hiru ziklistako taldea osatu du Hirumetek

Xabier Garcia eta Dani Ruiz gehitu zaizkio Egoitz Murgoitiori aurtengo denboraldirako



Egunotan Belgikan daude lau lasterketatan parte hartzeko.

Aurten Egoitz Murgoitio abadiñarrak gainera, Xabier Garcia eta Dani Ruiz ere Hirumeten elastikoaz ibiliko dira laster hasiko duten ziklo-kros denboraldian: "Proiektu handiagoren aldeko apustua egin du Hirumetek, eta aurten nazioarteko lasterketa gehiago korrituko ditugu", dio Murgoitio. Hain zuzen ere, atzo Belgikara joan ziren, eta urriaren 3a arte nazioarteko lau lasterketa korrituko dituzte.

Xabier Garcia elorriarra da, eta iaz Debabarrena taldean ibili zen. Hala ere, bere kabuz ziklo-kroseko lasterketak korritu zituen. Dani Ruiz gernikarra da eta iaz Arratiako Opel Ibaigane taldean ibili zen. 23 urtez azpiko Munduko Txapelketan bigarren geratu zen. Murgoitio iaz zazpi lasterketa irabazi zituen denboraldi ona osatuz. Aurten, munduko txapelketan iaz erakutsitako errendimendua hobetzea du helburu. ■ J.D.

“Arraroa egin zait urdina ez den beste kamiseta bat janztea”



Mikel Blancok (Abadiño, 25 urte) errugbiko mailarik gorenean jokatu du aurtan, Gernikagaz. Durango Ilarduyan 13 urte eman ondoren, gogotsu ekin dio etapa berriari. Zenbat balio duen erakustea eta jokalaria legez ahalik eta gehien haztea ditu helburu.

Noiz jakin zenuen Gernika Rugby Taldearen interesaren berri?

Maiatzean Durango Rugby Taldeko presidentek deitu zidan, Gernikako kirol zuzendari teknikoak nigitik interesa erakutsi zuela jakinaraziz. Gernikako zuzendari teknikoagaz ez eze, entrenatzaileagaz ere batzartu nintzen, zer ideia zuen jakiteko. Lehenengotan duda egin nuelako eta horrelako fitxaketek euren gestioak behar dituztelako kontua apur bat atzeratu zen, baina orain aste bi jaso nuen askatasun-agiria eta talde berri-
ra batu nintzen.

Dudak izan zenituela aipatu duzu.

Eta berri baten atarian nengo eta, pausua eman aurretik, gurasoei eta lagunei euren iritzia eskatu nien. Nik joan gura nuen, baina, badaezpada beste ikuspuntu batzuk ere jaso gura nituen. Denek animatu ninduten, eta horregatik onartu nuen

“*Hasieran duda egin nuen, baina denek animatu ninduten urratsa ematera*”

“*Askok galdetzen didate zelan doakidan, eta esker oneko nago*”

eskaintza. Bestalde, ordutegi kontuengatik ez nekien kirola eta lana bateratu ahalko nituen, baina moldatu nintzen.

Beraz, futboleant gertatzen den kontrara, errugbian ohorezko mailan jokatzek ez du profesional izatea bermatzen.

Ez, oso gaitza da. Jokalari batzuk profesionalki dihardute honetan, baina klubean bestelako zereginak ere egin behar izaten dituzte; entrenatzaile lanak, esaterako.

Hamar jokalaria fitxatu ditu Gernikak. Zelan egokitu zara talde berrira?

Nik lehenagotik ere ezagutzen nituen Gernikako jokalaria batzuk. Oraindik igartzen da heldu berriak garela, baina apurka-apurka egokitzen joango gara.

Gernikak argentinar jokalaria asko izan ditu. Oraindik ere bai?
Bai, eta hiru frantziar eta neozelandar eta eskoziar bana ere

badaude. Ez deritzot txarto. Gainera, nire ustez, hemendik urte batzuetara nazioarteko baino etxeko jokalaria gehiago egongo dira taldean.

Zer alde igarri duzu Durango Ilarduyatik Gernikara?

Ohorezko mailan dabilzanez, profesionalagoa da. Entrenamenduetan zein partiduetan eritimoa biziagoa, gogorragoa da.

Ordiziaren kontrako derbian debutatu zenuen. Zelan aurkitu zenuen zure burua?

Lehenengo zatian bakarrik jokatu nuen. Apur bat nerbioso hasi eta apurka-apurka hobeto aurkitu nintzen. Bigarren zatia jokatzeke gogoz geratu nintzen.

“*Errugbian jokatzek da mundu honetan dudaren bizi bakarra*”

“*Sekula ez dut hainbeste jenderen aurrean jokatu; horrek motibatu egiten nau*”

Konpetentzia handia dago zure postuan?

Bai, handia. Ez dago entrenamendurik trankil hartzerik. Beti ehuneko ehunetan entrenatu beharra dago lehiakortasuna mantendu gura izanez gero.

Zale asko joaten da Gernikaren partiduak ikustera?

Jende asko joaten da eta afizio ona dauka. Nik sekula ez dut hainbeste jenderen aurrean jokatu, eta presioa somatzen da. Baina polita da jende askoren aurrean jokatzek, motibagarria.

Luzaroan Getxo izan da euskal errugbiaren erreferente. Orain hiru talde zaudete: Ordizia, Bera Bera eta zuek. Nork hartuko ote du Getxoren oinordekotasuna?

Zuk esandako moduan lehenengo hemen errugbiari buruz berba egitea Getxori buruz jardutea zen. Orain, pastela banatuago dago, eta denok parean gaudela uste dut; ez dut talde bat bestearen gainetik ikusten. Denok ere parean gabilta.

Durango Ilarduyan 13 urte egin dituzu. Hasieran arraroa egingo zitzaituzten kamiseta berria.

Bai, koloreengatik batez ere. Iazko argazkiei begiratzean urdin kolorea ikusi eta arraro egiten zitzaidan soinean neramanaz konparatzea. Ohitzen joan beharko dut.

Durango errugbi zaleak galdetzen dizute zelan zabilzaten?

Taldekie ohiek, zuzendaritzako kideek zein klubetik kanpokoek galdetu izan didate zelan doakidan. Jende askok erakutsi dit interesa eta guzti-guztiei esker oneko nago.

Zer helburu daukaz Gernikak aurtengo denboraldian?

Lehenengo mailari eusteko puntuak batzea da. Hortik aurrera, dakiguna ematen badugu, goian egoteko aukerak badauzkagula uste dut.

Zelan ikusten duzu Durango Ilarduya?

Hainbat talde asko indartu dira, eta urte gogorra izango dutela uste dut. Sufritzea egokituko zaie. Neuk ere sufrituko dut, ahal dudan denetan partiduak ikustera joango naiz-eta.

Zer eskatzen diozu hasi berri duzun denboraldiari?

Barruan dudaren joko guztia emateko kapaz izatea, eta jokalaria moduan haztea. Errugbia da mundu honetan dudaren bizi bakarra. ■ J.D.

“*Aurtan ahal dudaren denetan joango naiz DRTren partiduak ikustera*”



AMALURRA[>]



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Herri barruan auto barik mugitu daitekeela aldarrikatzen

Airearen kalitateari buruzko informazioa emango dute; laster Landakoko airearen kalitatea aztertuko dute

Zapatuan bizikleta martxa egingo dute, eta eguenean Mugikortasun Iraunkorraren Udal Plana aurkeztuko dute

Atzo hasi zen Europako Mugikortasun Iraunkorraren Asteagaz bat eginda, Durangon hainbat ekitaldi prestatu dituzte

Eskolarako bidea, lanerakoa, erosketetarakoa... batzuetan oinez, bizikletaz edo autobusez erraz egitekoak dira, baina askotan autoa hartzen dugu. Durangarren bizi-kalitatea garraibideen aukeraketagaz estu lotuta dagoela-eta, mugikortasunaren inguruko hausnarketa egingo dute *Mugi zaitetz adimenez eta bizi hobeto!* lelopean Durangon, atzo hasi zen Mugikortasun Iraunkorraren Astea.

Atzo 'txita-taxiak' izeneko ibilgailu iraunkorrak erabiltzeko aukera egon zen egun guztian, eta arratsaldean eskolarako bidearen inguruko hitzaldia eman zuten Elkartegian. Ume eta gaztetxoek txikitatik barneratzen dituzten ohiturek garrantzia handia dutela nabarmendu dute Durangoko Udaletik: "ume-

en garapenean, osasunean eta ingurunearen ezagutzan uste baino garrantzia handiagoa du eguneroko ibilbidea egiteko aukeratzen den garraibideak".

Airearen kalitatea

Mugikortasunaren Asteari lotuta, airearen kalitateari buruzko informazio kanpaina egingo dute udalak eta Azterlan ikerketa zentroak. Gaur Landako Gunearen aurrean egongo da informazioa; bihar goizean Andra Mariko elizpean; eguazten goizean, berriz, Zumalakarregi kalean. Udalak eta Azterlanek jakinarazi dutenez, laster Landako auzoan airearen kalitatearen datuak hartuko dituzte.

Egitaraua

Atzo hasitako egitarauari bihar ekingo diote berriro. Iurretako

Txirrindulari Elkartek lagunduta, herri-martxa egingo dute bizikletaz, 17:00etan Landako Gunetik irtenda. Bidegorrietatik Astolara arteko ibilbidea egingo dute. Partaideen artean opariak zozketatuko dituzte.

Eguaztena Autorik Bako Eguna da, eta hori dela-eta Zumalakarregi kalea autoei itxita egongo da egun guztian. Arratsaldean umeentzako hainbat ekitaldi egongo dira Ezkurdin: puzgarriak, hanka-luze saltarien tailerra, antzerkia... Antolatzaileek azaldu dutenez, euria egiten badu ekintza horiek guztiak Landako Erakustazokan gauzatuko dituzte.

Eguenean amaituko da Mugikortasunaren Astea. Elkartegian Mugikortasun Iraunkorraren Udal Plangintzaren emaitzak aurkeztuko dira, 19:00etan.



B A U T I S T A
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO

**KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI**

AUKERATU EZAZU ORDAINITZEKO MODUA

ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

Saldu / Erosi
Errentan eman / Errentan hartu
Lan eskariak / Lan eskaintzak
Galdu / Aurkitu
Eman / Hartu

Eguazteneko 19:00ak arte
jasotako iragarkiak bariku
horretako alean
argitaratuko ditugu.
Beranduago jasotakoak
hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitze, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org.
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23
Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trasteleku (komuna ateratzeko aukera dauka) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Igoailua jartzekotan dira. Berogailua eta leiho berriak dauzka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Telefonoa: 655 712 105

Abadiño. Abadiño-Zelaietan etxebizitza salgai, 124 m², 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garajea eta ganbara. Bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 691 73 10 75

Abadiño. Etxebizitza salgai Abadiño, San Trokaz kalean (Zelaieta). Bi logela, trasteroa eta garajea. Ondo hornitua. Aukera ona. Telefonoa: 635 743 624

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berritua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berritua eta egoera ezin hobean. Telefonoa: 647 777 392

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea, jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m² eta 8 m²-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, lau armaru enpotratu, aluminioko leihoak, atek eta zoru aldatuta. Garajea eta ige-rilekuarekin. Telefonoa: 655 704 684

Durango. Alde zaharra. 71 m². Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berrituta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondo), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. Telefonoa: 607 71 53 53

Durango. Etxebizitza salgai Durangon. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita) trastelekuagaz eta balkoiagaz, eta komuna. Oso eguzkitsua da eta etxe osoak kanpora ematen du. Bi kotxerentzako garajea aukeran. Prezio onean. Telefonoa: 656 76 46 73

Durango. Durangon etxebizitza salgai. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpora ematen du; oso argitsua da. Pisu altua 30 m²-ko terrazarekin. 220.000 euro. Tel.: 696 255 083

Durango. Atiko zoragarria salgai Durangoko alde zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berritua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, su-

kaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Telefonoa: 659 425 890

Elorrio. Pisu eder bat salgai Elorri. Berritua, 124 m², gas naturala, berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Derrigorrezkoa da ikustea. Prezioa: 264.500 euro (44.000.000 pta). Tel.: 685 73 48 25

Elorrio. Pisu eder bat salgai, Elorriko auzoa auzoan. Leku zoragarria. Tel.: 639 020 581

Garai. Oar-erdikoa baserria, 6. Garaiko San Migel auzoan. Udaltxetik 150 metrora. Hegoaldera begira. 300 m²-ko solairua. 10.000 m²-ko lur-saila. Nekazaritzarako edo landa-etxerako oso egokia. Erreformatzeko. Proiektua aurkeztu gero, etxebizitza 2 egiteko aukera. Telefonoa: 639 833 489

Lurreta. Pisu saltzen da lurretan, Maspe kalean. 3 logela, sala, sukaldea eta komuna. Guztiz berritua. Igoailuarekin. Bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 653 011 897 edo 648 102 025

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai Mallabian. Koka-pen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Telefonoa: 655 70 26 47

Zomotza. Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m²-ko lur-sailarekin. Aukera paregabea! Tel.: 695 701 858

ERRENTAN EMAN

Durango. Durangoko Tabira auzoan pisu konpartituan logela alokagai. 250 euro. Harremanetan jartzeko posta elektronikoa erabili: miripz@yahoo.es

Durango. Durangon, erdialdean, pisua alokagai prezio onean. Interesdunak: 653 011 166

Elorrio. Elorriren etxe berri-berria alokatzetan da. Leku onean kokatuta. Telefonoa: 647 183 088 edo 646 377 687 (arratsaldez)

Zaldibar. Logela bat alokagai Zaldibarren. Telefonoa: 655 739 792

ERRENTAN HARTU

Berriz. Berrizen edo inguruan pisua alokatu nahi genukeen bikote bat gara. Deitu: 669 956 450

Durango. Durangon 1-2 logelako pisua alokatu beharra dugu. Olatz 627 470 544

Elorrio. Elorriren pisu baten bila nabil alokatzeko. Altzariek eta berogailuarekin. Tel.: 94 658 2191 Bego

PISUA KONPARTITU PISUKIDE BILA

Durango. Pisu konpartituen dut. Logela bat ematen dut errentan. 661 84 79 37

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Atxondo. Apatan 40 m² loka alokagai. Komuna ipinita dauka. 686 13 71 23

GARAJE/ TRASTEROAK

SALDU

Durango. Aukera handia!! Txibitenan (Jesuitak ikastetxearen ondoan) garaje bat saltzen dugu. Plaza irekia eta oso ona. Deitu telefono hauetara: 660 38 59 95 / 660 38 60 43

Elorrio. Garajea salgai. Telefonoa: 658 759 264

Teknologia

INFORMATIKA/ BIDEJOKUAK

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen dodaz. Hard eta soft. Ordenagailuak konpontzen dodaz. Etxe etxe joaten naz konpontzen. Hardware eta software. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini, etab... Arin eta merke! Telefonoa: 650 172 285

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Berriz. Andre eskalduna hiru edo lau orduan umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko prest. Telefonoa: 94 622 57 24 edo 680 50 95 32 (izaskun)

Durango. Gizon heldu bat adineko pertsonak zaintzeko prest dago, asteburuetan, jaiegunetan eta abuztuan hilabete osoan. 690 28 60 71

Durango. Andre eskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduek... Zaintzeko prest nago. Urte askotako esperientzia daukat eta lehenbaila hasteko prest nago. 699 745 723

Durango. Bertako neska, umeak edo edadetuak zaintzeko prest. Esperientzia handia. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 688 676 588 edo 94 658 33 32

Elorrio. Neska eskalduna astelehenetik ostiralera, arratsaldetan, lehen hezkuntzako prest. Irailetik aurrera. Haur hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda eta gaur egun hezkuntza bereziko ikasketak egiten. Interesa baldin baduzu, deitu: 688 640 604 (arratsaldez).

Elorrio. Neska eskalduna astelehenetik ostiralera, arratsaldetan, lehen hezkuntzako (5-12) klase partikularak emateko prest. 688 640 604 (arratsaldetan deitu)

Elorrio. Helduentzako eskara klaseak ematen ditut, azterketak prestatzeko. Telefonoa: 675 706 105

edadetuak paseatzera ateratzeko prest. Interesa baduzu... 688 654 291 (arratsaldetan deitu)

Elorrio. Elorriren neska gazte bat arratsalde haurrak zaintzeko prest dago, baita haurraren etxeko lanez arduratzeko. Interesa izanez gero, deitu: 600 361 381.

lurreta. 27 urteko neska eskalduna, iurretarra, astelehentik ostiralera goizeko 07:00etatik arratsaldeko 16:00etara lan egiteko prest. Umeekin, ezindu psikikoekin eta adinekoekin esperientziaduna. Gizarte eta kultur animazioa ikasia. Neure kotxea daukat. 607 340 659

Zaldibar. Neska eskalduna umeak zaintzeko edo/eta partikularak emateko eskaintzen da, lehenengo hezkuntzatik DBHra arte; 3 urtetako esperientzia daukat. Telefonoa: 610 00 44 43.

IRAKASKUNTZA

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle eskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Ezpezialitate matematika klaseetan. Telefonoa: 635 74 61 76

Durango. Heziketa bereziko eta psikopedagogiako ikasketak dituen 23 urteko neska eskalduna, lehen hezkuntzan klase partikularak emateko prest. Tel.: 615 731 881

Durango. Magisteritza ikasten dabilen neska gaztea, abuztuko lehen hamabostaldian umeak zaindu eta klase partikularak emateko prest. 686 741 676 (Amaia)

Durango. Ingeles partikularak emateko prest durangon. LH, DBH eta batxilergoko ikasleei zuzenduta, ondorengo gaien inguruan: matematika, fisika-kimika, euskara, gaztele-
ra, etab. Telefonoa: 635 205 012

Durango. Udan errefortzu klaseak emateko prest nago. 3 urteko esperientzia daukat, 22 urte ditut eta magisteritza amaituta daukat. Klaseak euskaraz edo gaztelez ematen ditut, eta ikasgai guztietakoak. Interesa baduzu deitu: 615 73 53 85

Durango. Ingeniaritza ikasten ari den neska eskalduna udan klase partikularak emateko prest durangon. LH, DBH eta batxilergoko ikasleei zuzenduta, ondorengo gaien inguruan: matematika, fisika-kimika, euskara, gaztele-
ra, etab. Telefonoa: 635 205 012

Elorrio. Neska eskalduna astelehenetik ostiralera, arratsaldetan, lehen hezkuntzako (5-12) klase partikularak emateko prest. 688 640 604 (arratsaldetan deitu)

Elorrio. Helduentzako eskara klaseak ematen ditut, azterketak prestatzeko. Telefonoa: 675 706 105

Elorrio. Irakaskuntza ikasten dabilen elorriotarra astelehen, asteazken eta ostiralean lehen hezkuntzako haurrei klase partikularak emateko prest. Interesatur egonez gero nirekin harremanetan jarri mesedez. Telefonoa: 600 883 213

Elorrio. Euskara klaseak ematen ditut, azterketen prestatzea eta mintzapraktika. Deitu: 675 706 105

Elorrio. Elorriren klase partikularak ematen ditut. Telefono zenbakia: 675 706 105

ETXKO LANAK

Durango. Andre eskaldun bat behar dugu gure umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi ordu egunean. Telefonoa: 605 825 026

Durango. Durangaldeko herriei zuzenduriko lan eskaintza da. Iniziatiba eta lagun arteko dohaina duen pertsona bazara eta hileko soldata plus bat nahi baduzu, hona hemen aukera ezin hobea. Zure etxetik eta zuk nahi duzun orduetara egokituriko lanpostu komertziala eskaintzen dugu. Saltzen duzun produktu bakoitzeko komisio finko eta ziurrarekin. Produktu berri-
tzaila eta erakargarria salmentarako. Beharrezkoa: ordenagailu portatila produktuen aurkezpenak eta norbere autoa. Telefonoa: 943 10 72 00

Durango. Durangaldeko herriei zuzenduriko lan eskaintza da. Iniziatiba eta lagun arteko dohaina duen pertsona bazara eta hileko soldata plus bat nahi baduzu, hona hemen aukera ezin hobea. Zure etxetik eta zuk nahi duzun orduetara egokituriko lanpostu komertziala eskaintzen dugu. Saltzen duzun produktu bakoitzeko komisio finko eta ziurrarekin. Produktu berri-
tzaila eta erakargarria salmentarako. Beharrezkoa: ordenagailu portatila produktuen aurkezpenak eta norbere autoa. Telefonoa: 943 10 72 00

Durango. Garbiketa lanak egiteko prest, tailer edo tabernetan. Tel.: 647 242 301

LAN ESKAINTZAK OSTALARITZA

Berriz. Berrizko enpresa batek sukaldari laguntzaile behar du jate etxe bateko sukaldari lanaldian osoan behar egiteko (astelehen, asteazken, ostegun eta igande eguerdian, eta ostiral eta larunbatetan gauzez ere bai; astearteak libre). Ezinbestekoa: urtebeteko esperientzia sukaldari laguntzaile lanetan, b gidabaimena, norbere autoa eta durangaldean bizitzea. Kontratu: probarako aldia, luzatzeko aukerarekin. Berehala hasteko. Sartu - erref: 6.734. Telefonoa: 94 620 04 49

Berriz. Berrizko enpresa batek zerbizaria behar du jate etxe bakoitzeko mahaia zerbizatzeko lanaldian osoan (astelehen, asteazken, ostegun eta igande eguerdian, eta ostiral eta larunbatetan gauzez ere bai; astearteak libre, eta hilabete igande bi ere bai). Ezinbestekoa: urtebeteko esperientzia zerbizari lanetan, b gidabaimena, norbere autoa eta durangaldean bizitzea. Kontratu: probarako aldia, luzatzeko aukerarekin. Berehala hasteko. Sartu - erref: 6.736. 94 620 04 49

